



Iturria: *Santa Kruz apaiza*, Nikolas Ormaetxea Orixe. Gero, 1974.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/O/OrixeKruz.htm>

## SANTA KRUZ APAIZA

Nikolas Ormaetxea «Orixe»

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## AITARI.

*Jainkoa ta Euskalerria zenduzen buru-biotzetan, armak  
artzean; nik ere bai orain, ustez, lumari eragitean. Jaso erazu  
begi onez, semeak eskeintzen dizun maite-agitiño au.*



Lenengo txatala  
**SANTA KRUZ APAIZAREN  
 BERRI TA GARBITASUNAK**

Santa Kruz apaiza il omen da. Oraingoan bai, egia da. Noizpait il-bearra ere ba zan. Etzan samurra gizagajoa, baño arenak ere egin du. Onozkoro ba daudeke lasai liberal bildurtiak. Asmoetan nenbillen aspal-di aren bizitza euskeraz argitaratzeko, ta ez da nik nai-orduko atera. Alde batetik, garbitasun batzuen begira egon naiz luzaro, ta bestetik, bear adifña beta ez izan. Diralako berri edo argitasun edo garbitasun oiek, adiskide aundi batengandik sortu ditut: bi urte osoz apaizarekin berarekin bizi izan dan betengandik. Diodan adiskide tolosar orrek zer egin zun? Gure alderdi otan apaizaren kontra atera diran liburu ta paperak denak bildu, zerrenda betean ipiñi, ta apizari berari begitaratu zizkion, arek bere aldetik arantzuna eman zezan. Batzuen ta besteena entzun-bearra dago, iritzi zuzena emate eskeroz. Ez diteke ukatu argitasun oien berri gabe ez ditekela bear bezela iritzia eman. Santa Kruzi berari ere entzun bear diogu, ta arek esaten dunetik igarriko diogu zer bidez eta nola ari izan zan karlistaldian. gaurko jakintsuen iritzi-miritzi edo kritika, len esan dedan tolosar Jesusen Lagundiko A. Aristimuñoren bizkar utziko det, eta argitasun eta garbitasun oiek atzimurkatu besterik eztitut egingo egia begien aurrean daukadala. Berak ere lenbailen atera nai luke erderaz, baño luzetxo dijoa. Arren-eta-arren! egiñalak egin nizkion, gure euskera gaxoak mesede zula ta, berri oiek neri uzteko aurrena. Lentxego naiz geroxego argitaratu, erderari ez dio ezer, baño euskerari bai nere ustez. Zergatik ala?

Santa Kruzen berri ematen dun liburua ikusi ezker, erriak gogotik elduko diola nago, ta euskeraz irakurtzea zailla ba da ere, erdia asmatuz eta beste erdia alegintxo bat egiñez, oituko al dira euskaldunak irakurtzen. Orixe nai nuke nik. Joan dira gure Fueroak esatea mingarri ba da ere. Euskalerrria ez da osotara il, baiño ba derama bide. Ilko ezpada, euskerak eutsi bear dio Euskalerrriari ta euskalduntasunari. Geren izkuntza galduko ba gendu, betiko galdu giñake. Santa Kruzek, bestek adin bat egin zun Fue-roen alde, gure aspaldiko lege aiei eutsi-naiean. Euskera pizteko ere, aren izena ta bizitza ez dira alderdirik makalena izango. Euskalduntasuna ernarazteko ere ez.

Igarren txatala  
**ONDO EGIN AL ZUN SANTA KRUZK  
 GERRAN SARTZEA?**

Oraingo liberalak edo ezkertarrak nai dute apaizgaiak eta apaizak soldau joatea, ta ezan konpesioetan aritzera bakarra. Baño Elizak eztu nai. Apaizak Jainkoaren eskudibez gerrara gabe daudeke, ta Elizak joatea debekaturik dauka. Berez oker egiña da apaiza gerrara joatea Eliz-legeari miñ ematen baitzaio. Orduko egunetako gertaerai ta saietsai begiratzear-ekin, Santa Kruzek eztu bear bada Jainkoaren aurrean ainstesterañoko erantzun-bearrik. Bere buruari siñistarazi zion nonbait, Erliñoaren aldeko gerrari ekitea on-egoki zala. Erriari ere ala zerizkion. Jakin egin bear Euskalerrria nola zegoan egun aietan. Itxukeratu edo zan burutapen orrekin, eta barkakizunago da. Jainkoak barkatu zion beintzat; Elizak ere bai, bere barkapena bialdu zion; eta ixtoriak ere barkatuko al dio. Gaurko egunean «guzia-barka» edo «transigente» oiek barkatzen diote okerragoari ere; baño gure au apaiza izaki, ta oientzat eztago barkatzerik.

Gañera, Santa Kruz etzan bakarra karlistaldian ere: ba ziran beste berrogei apaiz bederen. Arrezkero, Europa-gerran ere ba ziran millaka ta millaka apaiz ta praille, ta ez konpesatzen aritzeko. Oiek ere oker egin zuten bai, baño oienak ez dite batzuri miñik ematen.

Ezekiel Moreno Obispo jaunaren entzutea izango dezu. Colonbiako Paston, apaiza misiolari il dan artan Obispo zan. Oso gizon zuzenaren aldekoa ta liberalen etsai zorrotza. Santa Kruz bizi zala il zan, eta aren gorputza Napparroako Monte-Agudora ekarri zuten Agustinoak, beren ango praille-etxera. Santu-otsean il zan eta beatifikatzeko asiak dira. Berez Logroñotarra zan, Alfaroko semea, ta praillez Ameriketara joanda an Obispo izana. Aretxek bada bialdu zun 1910garrenean gure Santa Kruz, Alfaroren eta liberalen kontra, berreun gizonen buruzagi. Santa Kruzek berak dionez, ontzat eman zion Euskalerrrian egiña, ta baita Urgelko Obispoak ere. Eriotz asko egiñarazi zula; makilla dantzatu zula besteren ezurretan. Baditeke zorrotzegi ta gogorregi izan izatea, baño bearra ere ba zegoan norbaitek ori egitekoa. Egiñarazi zitun eriotzak, baño gerrako legez; eman zitun makillakoak, baiño esaten duten amarretatik bat ere ez. onetan ere itsutuxe zan gizagajoa, ez baitzun eskubiderik bere gisa ori egiteko. Gerrak ere bere nagusiak ba zitun karlistetan; baiño Santa Kruz beti iduritu txarrakin zegoen aiengana, ta bere gisa, auziak eta Euskalerrriak



ematen zion eskubidearekin edo eman-uste zionarekin, egin zitun zentzua-  
keta aiek. Odolkeri gogorrak egin omen zitun. Guzi guziak ez al dira egi  
izango. Jesuitak ez dute nolanaiko gizakumerik etxerakotzen; baño Santa  
Kruz jaso zuten beren artera. Bear ziran argitasunak eta garbitasunak  
atera bide zitun. Apaizak etzun beñere erantzutetik aldegin. Lizarragari  
esan zion, itzez Lekunberrin esandako izugarrikeri aiek iskrribuz ipintze-  
ko, ta erantzungo ziola. Oraintsu Julio Urkijok esan du Santa Kruzen  
auzia garbitzeko asmoan asi zan gizona bizi dala oraindik eta, ezer ezpai-  
tzun ateratzen baserritarendik, utzi egin ziola. Ezer etzitekela jalki  
baserritarren abotik, Santa Kruzek gero zigortuko zitun bildurrez...  
Merke-samar asmatua da ori. Berrogei urte ta geiagoan ez al du betarik  
izan, Santa Kruz Ameriketari zegoen bitartean, etortzeko bildurrik etza-  
nean, garbitasunak ateratzeko? Baserritarrak are kontra baiño alde geia-  
go esango zuten noski. Amaika baserri kixkaldu izango zuten liberalak  
Gipuzkoan, Santa Kruz izan ezpalitz! Santa Kruzek kuzkurtu ezpalitu!  
Andik luzaroan esaten zuten Gipuzkoako emakumeak: «Don Manuel  
emen izan balitz, etzuten olako ta olakorik egingo». Gipuzkoan udutzen  
eta alperkeri goxoan zeuden karlista epel «ojalatero» aiengatik nai zutena  
egiten zuten liberalak: ez Santa Kruzekin. Bai, liberalen geiegikeriak, eta  
zantzua artzen zebiltzen ispia aienak, aizatu-bearra zegoen.

### IIIgarren txatala

## GERRAREN SORTZEA: JAUNGOIKOA; EUKALERRIA; ERREGA

Zerk ekarri ote zun gerra, ta aurrenekoaren urrena bigarrena?  
Batzuk erlijioa zala, besteak Erregea zala, besteak Fuegoak zirala: nori  
sinistu? Orduko euskaldunen siñiste beroa ezaguna da. Liberalak ere esa-  
ten zuten «euskaldun zozo oiek, beren etxetik senideen bat apaiz ateratzea  
zutela espa guzia». Gipuzkoako Diputazio liberalak gerra ari «apaiza-  
gerra» izena eman zion. uste zuten, alegia, Don Karlos nagusi ateratzen  
ba zan, bai erlijioa ere. Gure Santa Kruz ere artan zegoen, eta amaika gau  
egin zitun, berak dionez, begiak ezin-itxirik! Ikus zer esaten zioten Dipu-  
taduak Amadeo Erregeari 1872 garrenean: «Erljioaren banderapean  
bildu dira jende biurri oiek, eta uste ori ain zabaldua baitzegoen aspaldi-  
dandik, orrek bildu ditu zoro oiek, egiten dituztenak egitera. Vitorriako  
Obispadutik datoz biurri-aldi ori ta ezin-egon ori. andik zuzendu dira  
1870garreneko matxinadak. Berrogeitik gora dira andik gerrara atera  
diran apaizak, eta Obispoak ez dite ezer esaten; ez eragozten».

Espaniko gobernu ta Isabel IIgarrena erlijioaren kontra ari ziran.  
Karlosen aldeko esnatzea 1865garrenean gertatu zan, ordudandik gerrara  
atera ezpaziran ere. Uda artantxe etorri zan Erregiña O'Donellekin Euka-  
lerrira, ta noiztxo gero? Aita Santuaren alde izenak biltzen ari zirala, bere  
jabe ta Erromako Errege zala aitortzeko. O'Donellek Vitor Manuel Ero-  
mako Erregetzat ukatuko zulakoan da... utsa. Ordu ezkeroz gorroto artu  
zioten gobernuari ta Erregiñari, ta orduntxe birbiztu zan liberalen kon-  
trako gorrotoa ere. Isabel IIgarrenak eldegin zun atzerrira, bere aldiko  
ixkanbilla emen uzten zula. Artatik erlijioari gerra eskañi zioten bein-bei-  
neko gobernu aiek, eta karlista zintzoak bai «eduki» ere.

*Euskalerrria.* Santa Kruzek Fuegoak gogoan ote zun gerrara joatean?  
Oraintsu, bere zarrean ere, Euskalerritik urruti zegoala ere, gogoan  
zeduzkan, eta gerrakoan eztago esan-bearrik. «Ni giputz gaiztoa naizela,  
eztedala giputz-izenik merezi? Nik adiña gau loak eziñ-artuz egin balitue,  
Marotoren eta gañerakoen saldukeriak entzutean! Au gaztetan —dio  
apaizak— eta oraintxe nere zarrean ere malkoak darizkit ainbeste ederta-  
sun galdurik ikustean. Ainbeste edertasun galduri! Beste itzez esaten eziñ  
asmatu det liberalak eta karlista gaiztoak Euskalerriri egindako kaltea».



Ta biotzik ez omen zun. Euskalduna ua ere, ta Fueroena entzutean su ta gar egiten zitzaion biotza.

*Erregea.* Jainkoa zan aurrena, gero Euskalerrria, azkena Don Karlos. Maite zuten bai karlistak eta Santa Kruzek beren Erregea, erlijioaren eta Fueroen aldekoa baitzan. Don karlosek euskaldunetaz baliatu nai zun Errege-alkian eseritzeko; euskaldunak berriz, artaz, Fueroetarako, ta biek musu uts gelditu ziran. Arek beintzat Gernikan eta Billafrankan juramentuz agindu zun, gure Fueroai eutsiko ziela. Beste Erregek etzun beste oinbeste egin aspaldiko urtetan eta gizaldietan. Ez al zan aren alde jartzeko diña? Aurrena zuzen asi zan Erregea, gero okertu ba zan ere. Inguruan ba zitun izateko batzuk, eta aien esanera ta egiñera jarri zanetik etzun gauz onik atera. Ordun etsi zun Santa Kruzek ere; bai karlista zintzoak ere. Atzera zentzatu zan, eta etzuten erabat utzi.

Don karlosek bein batez Ingalaterran topo egin omen zun apaizarekin eta tiroz ilko zula esan emen zion Espaiñian arrapatu balu. Aurrerago esango dizut ze gertatu zan. S. Kruzek ordurako ejertzizioak egin zitun eta etzion ajola aundirik il-bearra zan Errege batengatik. Indietarako asmoetan zebillen, basa-jende aiek Jainkoarengana bildu naiean. Ortarako laguntzarik eman balioite Erregeak, eskerrik askorekin artuko zun. Don Jaime Colombiara joan zan batez, apaizak karta bat egin zion, aren aita zanarentzat gerran ari izan zala, ta orain beste Erregerentzat ari zala, ta diru pixka bat bialtzen ba zion, esker onez artuko ziola bere inditarrentzat. Gaurko Espaiñiko errege Alfonso XIII garrenak ere zerbait bialdu zion apaizari. Aspaldi gabe, Alfonso Loiolako etxea ikuskatzen ari zala, artaz itzegitea gertatu omen zan. Galdetu omen zun jakin-nai biziz, zer bizimodu zeraman Kolonbian, aren aitaren kontra gerran ari izan zanak. Erantzun omen zioten bada, an ere soldaduzkoan bezela ari zala inditarrekin, eta aiei dei egiteko turuta edo korneta batek bear egiten ziola, len zerabilena ausi bai zitzaion. Baita Erregeak esan ere: «oraintxe agintzera noa bada berria Parisera, Prantzikoak abo-ttutta legunagoa baitute». Ta zillarrezko deiadar edo turuta ori etzuten ikusi Santa Kruzen begiak: il baitzan ordurako. Erlijioak ematen zion Santa Kruzi ajolik aundiena, urrena Euskalerrriak. Erregea gora bera, berdintsu zitzaion; baño Euskalerrriak «ainbeste edertasun» galdu zitulako «oraintxe nere zar zarrean ere malkoak darizkit».

## IVgarren txatala SANTA KRUZEN JAIOTZA

Manuel Santa Kruz Gipuzkoako Elduainen jaio zan, Berastegitik Tolosa alderako lenengo errian. Errekan jaio zala ta nik eztakit zer geiago asmatu duten liberalak; badakigu ordea, Samoa deritzaion baserrian jaio zala 1842garrenen Orrillaren 23garrenean. Asmatzen asi ezkeru nik ere asmatuko nituke gauztxo batzuk. Erreka-zulo ori, Berastegitik Ibarreñaño ori, lapur-zulotako polita dala esan diteke, baño liberalak eztute olakorik asmatu. Arritzekoa! Gure berriketa baño obe izango da baserri ori bera begien aurrean ipintzea ta.

Jende bearrak zirala aren gurasoak, eta laister umezurtz gelditu zala aitarik eta amarik gabe, ta osaba batek berekin artuta latin erakutsi ziola ta Vitorira eraman zula... atera dute aren etsaiak. Santa Kruzek bazun non jaiorik, errekeru gabe. Ez aita ta ez ama gelditu zala jaio ta bereala. Asmatua ori ere. Ama beintzat bizi zun Manuelek 29 urte bete zituneraño. Aita bai, il zitzaion bera jaio zan urtean. Etzun Manuelek bere osaba apaizaren besoetara jo-bearrik ere. Urrenagoko gezurra: gaxte gaxterik asi omen zan latini ikasten. Emezortzi urte izatea, ez da ume izatea: kozkortuxe ere ba zan latin ikasteari ekiteko. Bere osabak erakutsi ziola ere gezurra da: Tolosan ibilli zan ikasten bere lengusu apaiza Sasiainekin. Ditekena da, Vitorira joan zanean bere osaba zar arek lagunegin izatea, baño latini erakutsi ez. Aurreneko urteetako ikas-lanetan Elduaingo Parrokiak zerbait lagundu izan bear zion; baño gañerontzean berak ba zun zerekin zuritu Seminarioko paga-bearra. Emezortzi urte oietako berri txerik ez dizut emango, ta ez daukat asmatzen asi-nairik. Zer egin ote zun bitarte ortan? Taloa ta esnea naikoa jan bai beintzat; Beieri janarazi, itzuleran ibilli, gero lurra landu. Ola azi zan gogorra ta bizkorra, ta bearra izan ere ba zun.



Vgarren txatala  
**BITORIKO IKASTETXEAN**

Nolako istudiantea zan jakiteko liberalai galdegin bearko diegu. Ez bide zun jakintsu-jakintsu etera izan bear. Teologian bi urtez bakarrez ari izan omen zan da. Piralak eta Balerak eta oien gisakoak asma bezate nai dutena; baño ba dakigu, bere seminarioko begiratzaille batek esanda, ikastetsua zala, biurri-antza ba zan ere. Teologian bi urtez bakarrez ari izan zala egia da. Gizagajoa auldu egin zan, eta abotik odola bota zun. Etxerabearra izan zun bada itxedotera, erriko aizeak artzera. Apaiz egin zanetik beste bi urtez iñora gabe egon zan. Seminarioko aurreneko urteetan, osasunarekin zegoanean «meritissimus» atera omen zun.

Biurri-antza zalako ori zer da? Badakizu, apaiz-gaiak erne-xamarrak dira, ta Santa Kruz etzan oso zozoa. Beiñola, pelota-lekuan oztopo ematen zun arboltxo batek. Apaizgaien begiratzaillea arontza ta onontza zebillen bitartean, itzalgaizka, ua oartu gabe, zaiñetatik atera zun, emen zirika ta an indar. Galde ari ta galde oni, andik luzarora arte etzan jabetu begiratzaillea, nork egin zun biurrikeri ua.

Baño, beste bat egin zun polit samarra. Garai artan etzan tximistargi edo elektririk, eta ikastegian ari zirala ikas-mai-gañean zeuden argizagiak zanbulu egiten omen zuten danak batean. Begiratzailleak ezin igarri, belaunekin edo ikasmaiari nork eragiten zien. Banaka banaka, Santa Kruzi ez beste guziei kastigu bat eman omen zien. Nork uste, ain geldi ta kuzkur, bi begiak liburura zorrozuta ari zanak alakorik egin zezakenik? Lagunak aren ordañak artzen ikusteko biotzik ez ta, Santa Kruzek azkenean bere burua azaldu omen zun. Etzan bez oso biurria ta biozgabea. Ezagutzen zutenak aitortu zuten, ikasteko gogatsua zala: oien artean Gergorio Retana jaunak, Seminarioan aren begiratzaille izanak. Liberalentzat gauza guzietan okerra izan bear zun arek: errekan jaio; igitokume edo eskale-kume bezela ibilli; liburu-lanetan alperra izan. Batetan bakarra bear zun yaioa: gaizki egiten. Baño oraindik ez gaude arengandik urruti, ta egia jakiteko bidea izan degu.

Vigarren txatala  
**SANTA KRUZ ERNIALDEN.  
GERRARAKO ASMOETAN**

1866garreneko Maiatzaren 25garrenean apaiztu zan, eta aurrena Ernialdera bialdu zun. Obispo jaunak, Parrokoaren laguntzaille; urrena, bere artako Parroko egin zun, eta an ari izan zan, liberalak 1870garrenean preso artu zuten arte. Ta zer diote artaz Ernialdetarrak? Orain dala gutxi bizi ziran zarrak —onozkero eztakit aietan iñor bizi dan— abo batez aipatzen eta aupatzen dute: langillea zala; elizkizunetara jendea ekarriazten zula; Eliz-barrena txukun edukitzea gustatzen zitzaiola, ta bera ere Elizerako loreak egiten aritzen zala. Ernialden bi urtez egon zan. Makal-samar iritxi zan ara, dakigunez, baño ango aizeak oso gogortu omen zuten. Aurrenetik zaldi-gañean ibiltzen omen zan, oso aul baitzegoan; tisiko ote zegoan ere atera omen zuten, abotik odola atera zula esan baitegu.

Andik bi urtera etzun zaldi-bearrik emendik Prantzira juan-etorriak egiteko. Nonbait indarra ba dute Ernialdeko aizeak.

Gizagajoa an bizi zan pake pakean, baño barrena irauli ta nastu egin zion Euskalerrriaren aldi txarrak. Askotan aipatzen zun lenengo karlistagerraren joera: Marotoren saldukeria; Bergarako besarka edo laztana ta olakoak, ezin burutik uxatu; gabez lorik ezin egin. Esna-aldi oietan zertara joko, ta apaiza Merino gerrariaren bizitza irakurtzera jo zak. Orrela sortu zan aren biotzean gerra-naia. Pakea nai zun Euskalerrriarentzat, erre kara bidean ari zan Euskalerrri gaixoarentzat.

1872garreneko uda-lenean jeiki ziran karlistak berriz ere bizkor; baño bear adiña laguntza ez. Probintzietan zeuden soldaduak, gobernua utzita karlistengana etorriko zirala agindu, baño uts egin. Itza jan ezpalute laister jabetuko ziran erri nagusietaz eta gazteluetaz; baño gobernua- ren soldadu-taldeak, anai-antzean ez baño, tiroka artu zitun karlistenak. Karlista gizagajoak mendiak eta baserriak zituten beren mende, besterik ez. Ontaz gaiñera, Orokietako erasoan —Maiatzaren laugarrenean— apurturik gelditu ziran, eta illaren beraren azken-aldera, Amorebietako elkar-artze lotsagarria liberalakin.

Gobernuari Karlistak aurrenetik bildur eman ba zioten ere, arrezke- ro etzegoan bildur-biderik. Millaka gazteak il, preso atxitu, Kubara bialdu. Karlistak ere beren soldadu-nagusien konpantza galdu zuten, eta len



beren artean bat egiñik ezpazeuden, ezago ordun. Alare, negu artan bertan —Abenduan— altxa ziran berriz ere kataluñiarrak eta euskaldunak. Oraingoan ez lengoan bezela, zar edo gazte, makilla ta guzi, edo zuzenago esateko, makill utsez, asko beintzat. Oraingoan bai gazte bizkorak, eta zegokion bezela. Iru illabete-garrenean gobernuak etzun ezer iritxi, karlistak geiagotzea ta indartsuagotzea besterik. Gure apaiza etzegoan aisa bere txokoan, atari zabalera atera gabe.

## VIIgarren txatala ERNIALDEN PRESO ATXITZEN DUTE: IGESEGITEN DU

Santa Kruz zergatik atxitu zuten preso? Batzuk alde batera ta besteak bestera ari dira ontan ere. Bere apaiz lanetan oso begiratu izan arren, Tolosan zeuden gobernu-mutillari salatu egin zioten, pulpitutik gobernuaren kontra ari zala. Deitu omen zuten beregana, baño apaiza ageri ez ta, Ernialdera joan omen zitzaizkion. Baño ez bide da au bakarra. Bere sekretario Kaperotxipik ikus zer dion. Gipuzkoako Goierri dirumordo aundia bilduta Prantzian armak erosi zitula. Tolosako apaiza Orkaiztegi zanak askotan esan oi zun, gabez erri-ingurura ateratzen zala, konpianzazko jendeak errietatik zekartzioten armak biltzera. Bai gorde ere eramaten zizkietenak, beraiek ere sumatuko etzuten tokian. Mutil mordoxka ornitzen ari zala gobernu oartu, ta batalloi bat bialdu zun Ernialdera mikelete askorekin, bera preso artzera. 1870garrengo Agorarren seigarrena zan. Meza ematen ari zala, «Segorbeko eiztariena» zeri-tzaion batalloia azaldu. Uzten diote Meza bukatzen. Meza-ondoan sakristira zijoala antzeman zion zer ziteken, eta sakristauak adierazi zion zer zan, baño buruz belarri egin zion sakristauari, bai baitzekin karlisten etsai aundia zala, ta arrek berri eman zitela liberalai. Sartzen da kapitana sakristira, ta preso dala esan dio. Apaizak, uzteko beintzat Meza-ondoko esker-rrak ematen Jainkoari. —Baietz kapitanak. Aldare aurrean belauniko zegoan bitartean, nola igesegingo asmatzen ari zan. Andik preso zeramatela, eskatu zion kapitanari, barua austen uzteko seroaren etxean; eta baietz. Etxe ontan artzen zun egunero txokolatea, neke baitzitzaion beeko Olatzako baserrira joatea; ordu laurdeneko bidea, berriz Parrokira igotzeko. Apaiz-etxea erreta zegoan, eta argatik bizi zan Olatzan. Ien esan dedan serora-etxe ori, Urrutietxea da. Orduko jabea Antonio Ategi, seroraren senarra. Soldadu bakar batzuk etxe onen atze aurreko atean tenkatu ziran. Santa Kruz, beti bezain lasa, etxe barranean zegoala, esaten dio seroraren senarrari, galtzak eta abarkak ateratzeko. Jantzi du bizkar-saski bat buruan; artu du eskuan itaia, ta irugarren atetik atera zan, ate nagusiaren ondotik, soldaduei agur eginda, kantari. Etzuten ezagutu, ez bear bezela begiratu. Nori gogoak eman apaiza zitekenik?

Egon da egon, eta apaizarik ageri ez. Igo dira gosalki-tokira, ta txokolatea an zegoan oso osorik; baita sotana ere, alkiaren adarrean. Asten dira



aren atzetik, baño, joanda arrapazak! Mendi aietan barrena, jo zak Bida-nira. Illundu arte ango apaizak iduki zun gordeta, ingurumarin zebillen ala-olako jendearengatik. Gauaren laguntzapean, atzera Errialdera etorri adi, soldaduak armak usmatuko ote zizkioten bildurrik, beste norabait aldatzera. Azari batek bezain ondo jakin bearako zun bidea maldar aietan; oztopo ederrik egin ere bai. Bitartean zer ote zioten Tolosan? Apaiza lotuta ekarriko zutelakoan, atera da erria geiena, ta, ara zer dakarten soldadu zozo aiek: txorikumeak artzera joanda, kabia utsa eskuetan: eskope-ta-muturrean banderatzat, apaizaren soña ta kapela. Lotsa bear zuten. Andik zuzen, gau artan bertan, Zarautza bidea urratu zun mendiz. An egun batzuk eginda, alkatea lagun zula, kotxean Donostira jo zun. Alkate ori liberala zan, baño etzion oztoporik jarri. Donostitik, ordu gutxiren buruan, Prantzira sartu zan trenaz, gerra-gaiak inguratuzera. An bizi zan urte-terdiz, eta bitarteko berririk ezta. Ama gaixoa, 1871garrengo Azaroaren 13garrenean il zitzaion, eta ezta eriotz-ordurako etorri zanik. Ara joanda bi illabetera, Zarauzko alkate liberalai kartaz berri eskerrak eman zizkion. Zarautzen bi egun egin izan zitun Luis Arregi apaiz Laguntzallearen etxean.

## VIIIgarren txatala GERRARA ATERA-ALDIA AURRENEKOZ

Lau atera-aldi egin zitun Santa Kruz gerrara: lenengoa, 1872 garren-go Apirillaren erdi-aldetik azkenera bitartean, karlistak Donoztaben armak utzi zituzten arte; bigarrena, urte artako Maiatzetik, Agoztuaren 12garrenera arte; irugarrena, 72garrengo Abendutik 73garrengo Uztailla arte; laugarrena, urte artako bertako Abenduaren erditik azkeneara: guzira, amar illabete armetan. Prantzian emezortzi illabete egin zitun Españiara gabe, auzipetua baitzegoan. Karlistak esnatu zirala ikusita itzuli zan España, Errekondoren agindupean kapellau izatera. Beaz aurrena kapellau izan zan. Nola gogoak eman ote zion soldadu-nagusi izatea? Lenengo atera-aldi artan ikusi zitunak ikusita, buruzagiak edo jefek soldaduai nekea ta gosea ematen zizkiela: ler egineraztea erabaki zutela zirudien. Naparroako Leitza lotan zeudela, gaberdiz, etsaia ba zetorrela ta, turuta-soñua jo, ta Donoztabera jotzeko. Euri-jasa izugarria ari zun mendi illun aietan. Donoztabera ziranean, Errekondo ta are aldameneko mutillak asi ziran, gobernuaren soldadu-taldea ara etorri-berria zala, ta alper-alperrik zala aiek buruzkatzea, ta eskuak eman obe zutela... ta olakok adierazten. Bitartean errira baño len buruzagiak aldegin zuten, ezta ki-gu nora ta nola. Karlista-mutil bizkor aiek amorruek artu zitun, beren buruak nagusirik gabe ikustean. Ala gerrarik etzitekela egin, eta bere artan armak utzi zituzten. Ez ordean Santa Kruzekin ziran Errialdeko mutil batzuk eta beste bakar batzuk: oek Prantzira sartu ziran, Urruña deritzaion errira. An arontza ta onontza zebillen, Españiko gobernuak zela-tariak bialtzen baitzitun ua arrapatzeko. Bein batez, bi lagunekin Urruñara joan zan txango batean, an atsaldekoa egiteko asmoan. Bidean bi jendarme prantsesekin topo egin zuten, eta ezer etziten egin, ezpaitzituden ezagutu. Andik ateratzean, bere aiekin buru egin zuten, eta aiek bakoitzari Prantzirako garbitasunak eskatu; jakin izan baitzuten, Santa Kruz aien artean zala. Non dezu garbitasun-papera? galdegin zioten. —Ez deramat beñere nerekin: olako etxetan daukat, bear ba dezute. —Goazen ara, ta besotik eraman zuten. Etxera ziranean, nagusia aldegiña zan, eta an zeuden emakumeai, aren garbitasunak ego paperak ateratzeko agindu ziten. Gaxo aiek ikararen ikaraz, etzekiten zer egin. Alako batean rras! besoa askatuta, ekiten dio lasterrari, ta atzeko atetik igesegin zun usu ta arin.





Jarrai zioten atzetik jendarme zapataundi aiek: etzeuketen arrapaturik! Ordu beteko lasterraldia eginda, baserritar batek geldierazi zun, eta jendarmeen eskuetara egotzi. Nantesera eramán zuten, eta an ezpaitzuten agindurik aren kontra, askatu egin zuten. Egun artan bertan Burdeos aldera artu zun, eta andik atzera Donibane Lohitzunera, Maiatzera arte an egoteko.

Apaiza dantzaldi aietan zebillela Don Karlos Españira sartu zan Beran barrena, Maiatzaren bigarrenean, Naparroako mutillen buru jar-tzeko. Baño etsaia erne zegoan-da, indar-talde ua, gerrarako oitu baño len menderatu nai izan zun. Andik bi egunera Orokietako erasoan Moriones liberalak an urratu zitun karlistak 700 preso egiten zizkiela. Ala ere etzi-ran ikaratu ta atzeratu karlistak. Ill arren 14garrenean Mañarian bizkaita-rrak sekulako mutil-sailla galduerazi zioten Letonari, ta 15garrenean Oña-tin giputzak «Mendigorríko eiztariena» zeritzaion batallioari.

## IXgarren txatala AMOREBIETAKO ELKAR-ARTZEA LIBERALAKIN

Liberal gizagajoak asi ziran zurikerian eta koipekeritan bizkaitar kar-listakin, atsekabe ematen zitela ango zabaldien eta lurren ondatzeak, eta Bizkaiaren aurrerapena galarazi-bearrak. Maiatzaren 20 garrenean izke-tatu zan Elorrión Serrano Urkizurekin ari ontara. Bizkaiako Diputazioak ori jakiñ eta Urkizuri berri eman zion, izketatu zedila Serranorekin, len bai len auzia garbitzen ote zuten. Urkizu Mondragura zan, Serrano an bai-tzegoan. Onek begi argiz artu zun. Bestela berriz, Diputazioak berak Serranorekin itzegin-naia agertu zun Durangon; baño an batzarrerik ezin egin eta, Amorebietan egin zuten: Urkizu, Urue, Argintzoniz bizkaitarrak alde-batetik Diputazioaren orde, eta Serrano jeneralak bestetik. Onek bere pake-agiria eman zun, alako ta olako itzez, egia izan balitz! Euskal-dun zozoak siñistu, Santa Kruzek esan oi zunez. Erri-gerra artan elkar urratzen ari izatea ardiragarria zan; baño gure Fueroak zerbait merezi zuten.

Ikus zer zion Serranok: «1. Gobernuaren kontra nabarbendu diran karlista guzici, erabateko barkapena ematen zaie. Bakoitzari bere garbita-sun-papera emango zaio, iñork nekarazi ez dezan. 2. Aurrerakoan, arma-kin edo armarik gabe beren buruak eskaintzen ditutenai ere, emango zaie dagokien pake-bidea. 3. Prantzitik etorriak eta emen bertan ari ziran kar-listak, berriro sartu ditezke Gorbenuaren soldaduzkoan, lengo irabazpi-deakin. 4. Bizkaiako Diputazioak batzarrea egingo du Gernikako aritza-ren-pean eta Fueroak agindu bezela, erabakiko du, gerrako gastuak nola zuritu». Ta Fueroaz zet?

Illaren 24garrenean Zornotzatik ikus zer esaten zien kartaz Serranok Diputazioaren ordekoai: «Jaunak: entzun izan det, aspaldiko Fueroetaz bizkaitarrak darabilten marmaria ta bildurra. Baño ez oraingo gobernu-ari, ez lengoai ere, ez dite gogoak eman ere euskaldunen legeak ukitzerik ere. Neri dagokidanez, beren esku utziko dizkiet Fueroak, eta eskatuko diot gobernuari, Bizkaian pakea egingo dan bezain laister bildu ditezela batzarreak Gernikan, bear dan bidez, eta Bizkaiak moldatu dezala bere Diputazioa ta ordekoak, Fueroari dagokion bezela. Nik gobernuari eska-tuko diot, ortarako bear dan segurantz...» Au da izketa! Ordu ezkeroko gobernuak ere abo batez ari dira. Nonbait buruz ikasi dute betiko leloa:



«ez degu asmorik ere zuen Fueroak ukitzekorik». Ditegunak kenduxe, ta ditegun apurrak kendu-ala ta kentzekoan bertan ez dutela ukitzeko asmorik. Serranorekin elkar-arteze ori egin zuten Diputadu aiek ez ote zuten barrenean zimikorik ori egin zutelako? Noski: beren buruak edertzeko, ta egin zutena gainzuritzeko, izketa bat egin ziten gerratik aldegin etzutenai, nik eztaikit zer esanaz. Ainbeste neke alper alperrik zala; etzitekela ezer atera; ez diru, ez jende, ez laguntza, zeudela; ausarkeria litzakela gerran jarraitzea, ta uzteko; Serranok aukera onean pakea eskañi ziela, ta aiek etsi egin zutela. Zer erantzun zuten karlistak? Geienai miñ eman zien, Don Karlosi batez ere. Armak utzi nai izan etzitutenai, ta utzita berriz artuko zitutenai, Serranok eskañi egin zien, gerra-legez ariko zituala. Geienak utzi zituten; bakar batzuk berriz gorde, berriro artzeko asmoan; baño Amorebietako elkar-arteze orrek ondatu zitun. Etsaia galendu egin zitzairen, eta gogoetatik atera ziran, eta Prantzira igesegin. Garagarrillaren azkenerako, karlisten mutil-saldorik geienak itzali ziran: gazte asko il, beste asko preso atxitu ta Kubara bialdu ere bai. Karlistak, geienak, beren buruzagienganako uste ona galdu zuten, eta Amorebietako saldukeri orrek ondatu zitun.

**Xgarren txatala**  
**BIGARREN ATERATZEA,**  
**LENA BEZAIN ALPERRIKAKOA:**  
**ERNIOTIK IGESI**

Amorebietako elkar-arteze itxusi ori ikusita, apaiza Maiatzaren azkenetan berriz atzera Españira etorri zan Prantzitik amasei mutillekin, aien buruzagi. Etzeduken alderdi gaiztoa! Baño ala ere ez etsitzen. Bigarren aldi ontan. lengoan bezelatsu edo okerrago gertatu zitzaion. Urruñatik Oiartzungo mendietara jo zun, bere erabateko biltokia Aritxulegin egiteko. An eraso zioten tiroka mikeleteak eta an il zioten bere mutillik bizkorrenetakoa. Su bizik artu zun orduntxe Santa Kruz, eta bai bere mutillai egundañoeko bizkortasuna eragin ere, mikeleteen kontra. Anakak arindu bearra izan zuten, errira sartzeko.

Ta amasei lagunekin zer egin bear zun gobernuaren soldadu taldeen kontra? Etzien aurpegirik ematen ez; bera mendietan zebilela egiten zien kalterik aundiena. Lengo ekiñaldian bezela, oraingoan ere etzan jetxi errietara. Askotan bakarrik zebillen, zerbait aurreratuko ote zun, bideak laburtuz edo. Beiñola Ernio-mendian zebillen —ango zokoak ondo bazezikizkin— eta gabez, ango nekazari prestu baten etxera bildu zan. Leku egin zion gogoz, baita diruz lagundu ere. Bazitun adiskideak Santa Kruz, gero eskribitzaillak ukatu ba dizkiote ere. An zegoala, gobernuatarrak alajaña! Aren ondoan bazan beste baserri bat Santa Kruzaren gordeleku zana, ta ara bide artu zuten liberalak; baño etzegoala ikusita, beste baserri ontara etorri ziran. Iñork ikusi etzulakoan, Santa Kruz lasai oeratu zan, inguru aietan begiratzailerik utzi gabe. Eguna argitu zunean «galdu gera Don Manuel» esanaz esnatu zun etxejaunak, «esiturik gaude». Orain ere igesegino ote zun? Iges egin edo libratu beintzat bai. Etxejaunak aldegin zunean, leiorea atera zan apaiza, nor-ta ote ziran. Tolosako txapelgorriak! Etxeko nexka igo zitzaion eta «Don Manuel, izkutatu bedi, emen dira ta», esan zion. Au lana! Etxea etzun ondo ezagutzen; nora aldegiñik etzeukan; zer egiñ estualdi artan? «Onoko beste oe ontan etzingo nauk», esan zion bere buruari. «Begien aurrean zegok baño morroin bat naizela usteko dite, ta oera sartu nadin». Ta arek uste bezela gertatu ere. Txapelgorriak aren aurretik igaro ziran, baño etzuten arengana begirik zorroztu ere: ez gogoak eman ere izkutatu gabe zegonik.



Joan ziran Santa Kruz etzin zan oera, ta oea bero bero arrapatu zuten oraindik. «Nor etzin da emen?» galdegin zioten nagusiari, ta «ni» erantzun zien. Amorruez beterik atera ziran andik, an zegoala esan zitena armaz josi bear zutela ta. Gau guzian or ibilli gera alperrik aren billa, ta gezurra besterik eztingute esan. Nagusiak baso bana sagardo eman zien eta ala aldegin zuten.

**XIgarren txatala**  
**AMADEO ERREGEAREN BILLA:**  
**LIBERALAI ARMAK KENTZEN:**  
**ARRAPATZEN DUTE BERRIRO**

Gure apaiza estualdi oetan zebillela, Euskalerrian zebillen Amadeo Erregea, Españian alditxo batez Errege izana. Etzan noski Karlosen aldekoa. Amorebietako elkar-artzea baño ordu batzutat lenago, Serrano-rekin ari izan omen zan, andik urruti gabe. Santa Kruz Oñatin zegoala jabetu omen zan, Amadeo Bilbaorakoa zala kotxean. Alako batean begiztatu omen zuten kotxe bat, Oñatira ta Elgoibarrera asten dan bidegurutzean. Begien atzetik oñak. Kotxea miatu omen zuten-da an etzijoala ikusita, pakean utzi omen zioten. Arrapatu balu, etzion noski eskuan muñ emango.

Orañ Oiartzunen, gero Ernion, dagoeneko Oñatin, dantzatzen zan apaiza. Bearko, karlistai biotz pixka bat emango ba zien. Jakin izan zun Santa Kruzek, karlistak Amorebietan utzi zituzten armakin, Bergaratik Mondraura zijoazela liberalak, beren mutil-sailentzako. Bide berriaren bi aldetan pareta zegoan-da an izkutarazi zitun Santa Kruzek bere mutillak, eta bera arontz-onontza asi zan, etsaia noiz etorriko. Ba zetorren bada urbil, eta artetik igarotzean, Santa Kruzen keñu batera, tiro-jasarekin bere biziko zalaparta ateratzen zutela, izutu ta aizatu zituen liberalak. Ogeita bost lagun ziran, Prantzitik atera ziranean baño bederatzi geiago. Santa Kruzek agindu zien oju-zalaparta aundia ateratzeko, asko zirala usteko zutela-ta. Lenengo tiro-jasa entzun-orduko, laisterka igesegin zuten liberalak zamak utzita, bertantsu zegoan etxe batera, Santa Kruzek, aiek utzitako armak artu bizkarrez bere mutillekin, ta aldegin zun. Berrogei ta bat eskupeta, iru kutxa bete balarekin. Liberalak etziran talde aundia, baño bai Santa Kruzena baño mordoxka aundiagoa: lau mikelete aurretik, eta ogeitasei soldadu, gerra-tresnak zekaztenai lagun egiten. Andik amar minutu-ora ogeita amar gizon, eta atzeraxego soldadu-taldea. Gañera, ba ziran liberalak Oñatin, Bergaran, Mondragun, Aramaion eta Elorrioren, eta danak erabat asi ziran elkarren berri zutela, mugitzen. Etzedukan bada Santa Kruzek geldi-egonik.

Andik Kanparzako aduanara jo zun. an zeuden bi mikeleteri armak kendu, besterik ezer egin gabe, ta andik Anbotora. Ara iritxi zanean, bi



minutu besterik etzan, etsaiak andik aldegin zutela. Norekin? da Ernialden preso atxitu zun kapitanarekin berarekin! Etsai-bildurrik gabe an eseri ziran bazkaltzera. Baño aien poza etzan luzarorako. Bazkaltzen ari zirala, mutil bati oarkabeen eskupeta zartatu zitzaion, eta eskua zulatu. Bere mutillak Soroetaren mende utzita, apaizak berak izkutatu zun mendiatarte aietan, zauritu gizagajoa. Berak baitzekin inork baño obeki mendi aietako berri. Onetan, bere mutilletara bildu nai ta, asi ziran komeriak. Andik emendik soldadu-talde beltzak; batzungandik igesi ta besteakin topo egin: sasitik aldegin eta loiean sartu. Sata-lurra baño usuago azaltzen zan etsaia mendi-baztar guzietatik. Sumatu zuten, arrapatu zuten zelataria zalakoan, eta galdegin zion kapitan batek: zergatik abill igesi? —Soldadutalde batekoa naiz. —Noren agindupean abil? —Santa Kruzenean. —Eta orain non da Santa Kruz? —Eztakit. —Bazeramaten Axpe-Arrazola aldera, ta bidean errebolberaz eta gaizki-esanaz eskainka ari zitzaizkion; baño Santa Kruz etzan asko estutzen. Ala bear ta, ara beste oztopoa: saietetik bi mikelete, bata bere lengusua. Bere bururik ezin gorde ta aitortu egin bear: «Ni naiz Santa Kruz apaiza», otsegin zun bildurrik gabe. Au entzutearekin, ezpata aterata galdegin zioten: non dek mutil-taldea? —Etzekiat, erantzun zien. Axpe-Arrazolara biltzekoak ziran liberalen mutil-saillak. An zegoan Urdapilleta aipatua. Apaiza atxitu zutela jakitean «ez dekartela gero», esan zun; «il dezatela onera baño len». Mikelete bat, bai-oneta zorrozuta atera zan apaizaren billa; baño erdian zeramatenak etzioten utzi. Ala ere gaizki erabilli zuten soldaduak jo ta tira; bekodia kolpeka itxusitu zioten alik eta ebakiondoak bere aldirako izango zitun arte. Urdapilletak bere aurrean ikusi zunean «non dek ire mutil-mordoska?» galdegin zion. «Aitortzen ezpadek, ordu erdi beteko bizia daukak: kaikua aiz, kaikua izan aiz, eta kaiku-legez il-bearra aiz». Santa Kruzek doi doi erantzun zun, apaiza etorri al diteke? Aurrena Jainkoarekin, kontuak egin bear ditut. Izan ere etorri zitzaion apaiza, bere ikas-lagun izana. «Ilko autela deizkiok?» eta, «bai noski. Etzegok beste alderdirik. Ez dek ik ezagutzen jendetxo au». Konpesatu zan bada al bezain ondo, ta belauniko jarri ere bai, eriotza artzeko; baño oraindik etzan garaia. Urdapilletak, bai, ilko zun, baño atxitu zutenak etzioten utzi, ta ala eraman zuten Aramaiaora. apaiza zeramatenak, agindurik zeukaten, aren mutil-sailla azaltzen ba zan, aurreneko tiroa Santa Kruzi emateko. Bearrik etzan azaldu, arruti ez ba zan ere! Ezbaitzekin nola zeramaten.

## XIIgaren txatala ARAMAIOTIK ERE IGESI

Aramaion erriko etxean itxi zuten. Santa Kruz an zegoalako barratu zan belaxe, ta an bildu ziran zeuden etsai guziak, mordoskakan ibiltzeko. Ain zuzen ere, noren mendean egon Santa Kruz eta Ernialden musu-uts utzi zun batalloia beraren mendean. Oraingoan obeto kontu artuko zioten, eta igesegin bear ba zun, len baño ernego ibilli bearko zun.

Bi egunetz egon zan Aramaion aien mendean, Agoztuaren amargarrenetik amabigarrenera, gabetik illunabarrera. Bitarte ontan etzioten pakean uzten alditxo bat ere, etxetik plazaren erdira eramanez. Tiratzal-leak jomugatzat artu zuten, eta esan da esan ari ziran, bere mutil mordoska non zan aitortzen ezpazun, bost, lau, iru minutoko bizia zedukala. atxitu zutenetik Santa Kruzek artu zun seta, ixilik eta ixilik eta ixilik egoitea. ainbeste joan etorriren ondoren, esan zien garbi, egundaño etzula aitortuko: nai zutena egin zezatela.

Joan-etorri aietan begiak irauliko zitun noski, bide-baztarren bat arkitzen ote zun, igesegiteko. Gibela bear du! Baño etzegoan igesegiterik. Ala ere etzun etsitzen, eta igesegin ote zezaken, eta nola, ari zan bere buruarekin. zer erbia! Goiko bizitza batean zedukaten itxita; begiratzailea an zedukan gau ta egun; inorekin ezin itzegin zezaken; ala ere adiskide batzuk keñuka ari zitzaizkion nola igesegin. Zer egingo ta, gaixo zegoalako egin zun bigarren gabean. Ozpiñetan bustitako zatar batzukin lotu zioten bekokia, ta nork esan, aien bitartez igesegingo zula? Baño sapailloa edo balkoera joan ere egin bear zun, eta andik, lokarri aiek eta txamarra lotu, zintzilika igesegiteko. Soldadu begiratzailea an zegoan gelaren erdi erdian, eta etzedukan inora mugitzerik. Alako batean, ittokarrean zegoala, ta aize preskoa artu bear zula esan zion, ia balkoe ondoan etziten utziko zion, eta baietz. Urbilu zan sapailloa edo balkoera, ta an ezarri zan. Antxe, itzalka, itzalka, begiratzailea oartzen etzan moduan, mugimenturik atera gabe bezela, lotu zion txamarra burniari zatar-lokarri aien bidez, eta gero oera, len zegoan tokira itzuli zan. Gaberdian edo esan zion bere buruari, inoiz ba da, oraintxe, ta bearra egitera zijoalakoan, onetakoak jantzi zitun, eta bere artan goraka-antzean asi zan abokorroka zeriola. Goragalea kentzeko bezela, zabaldu zun sapailloa, ta oraindik ere goraka ari zan, eskuak sabelean zitula. Begiratzaileari eskatu zion baimena, andik bera txixa egiteko. etzion eman nai, bidlur baitzan noizean bein ikutera



zetorren kapitanak ala arrapatuko ote zun, eta Koronela ere begiz-begi bizi baitzan. Santa Kruzek ordun bere bigiratzaileri esan zion: Kapitana etortzen bada, eskupetaren ipurdiz jo nazazu; bitartean begira zazu ataldera. Ala egin ere zun, kapitana albo-gelan lagunekin dantan zebillen bitartean. Baño nora aldegin? ezpaitzekin Aramaio berri Araba-aldeetik len ibillia zan bide-erakustun batekin, baño au gaitzak artu izan zion da, bakarrik ibilli-bearra. Bein sartu zan erri artara, ta zegoan etxe artara. Andik lenegoz aldegin zunean, kale luze batean barrena joana gogoan zedukan. Baliatuko ote zion? Alako batean rrau, sapaillan bera. Begiratzaillea oartu zan eta burua atera zun, apaiza oraindio zintzilika zegoala. Baño, berandu! apaiza atarian zegoan eta zutik gelditu, lokarriai ta txamarri esker. Asten da laisterka, ez adiskideai ez etsaiei kasorik egin gabe, ta erritik atera arte etzan gelditu. Atzetik zetoziola sumatu zunean, ango ibaiera sartu zan, eta an luze luze etzin eta arrastaka joan zan, zume batzuk zeuden tokira. Baño au lana! urak etzun estaltzen gerriraño baizik, eta bildur zan, alkandora zuria ikusiko ote zuten. Erantzi egin zun bada, ta sasitarrean sartu. Billa zebiltzenak ara urbiltzen ziranean, leporaño uretan sartzen zan, eta aurpegiz sasira begira jartzen. Gau artan guzian eta urrengo eguerdira arte an ibilli ziran inguru aietan, eta etzuten arrapatu. Ikusten zitun berak barrendik lastargiekin zebiltzela; baita egun argiz ere. Gañera usmo oneko eize-zakurrekin zebiltzen aren billa; baño zegoan lekutik laisterregi pasa ziran, eta etzioten usairik artu. Aspe-Arrazolan ba zan meatze-zulo bat eta an egin zuten lenengo geldi-aldia, an izkutatu zalakoan.

Santa Kruz gizagajoa an zegoan ibaiean. Etzioten arkakosoak neke aundirik emango. Errosarioa erreztatu zun eta Ama Birjiñari eztakit zenbat eskeintza egin zizkion: Misioetara joango zala siñesgabeetara, andik onik ateratzen ba zun. Gizagajoa oso auldu omen zan. Ez da arritzekoa. Illaren 13garrenean eguerdi aldera liberalak utzi zun Aramaio, ta apaiza an gelditu zan ibaiean. An egon zan gabera arte. Otzak gogortuxe zun, eta noiz baño noiz an geldituko ote zan ari zan bere buruarekin. Aingeru begirariak lagunduko ete zion... eta ara gizon bat: «Atoz onera, esan zion, liberala naiz karlista zerala; atera nazazu bizirik». Gure gizonaren poza! «Zaude or geldi», esan zion: «atera nai ba dezu galdu zera, zelatari asko baitzabiltza, ta zillarra eskeintzen diote atxitzen zaitunari. Nik mundu guzian dan urrearengatik ere etzaitut salduko». Antxe egon-bearra izan zun illundu arte. Bitartean, gizon Aramaioarrak elastiku bat eta arraultz egosiak ekarri zizkion.

Santa Kruzen mutillak non ziran? Egun artan bertan, Arantzazuko arkaitzetan, artzai batek eman zien apaizaren berri: igesegin zula orain ere. —Bai ote? Ama Birjiñak atera dik, eta bere artan Errosarioa esaten asi ziran. Aramaioar gizagajok, illuntzean, konturik aundienarekin Anbotora eraman zun Santa Kruz, ango baserri batera.

Santa Kruzek berak ikus zer dion 1921garrengo Apirillean: «Oraindik gogoan daukat. An artu nun zerbait: urdai errea eman zidaten. Base-rritar aiek, batzuk begira zeuden, beste batzuk neri oñak garbitzen, legortzen ari ziran; emakumea urdaia erretzen, eta agure zarra aingeruaren gisa, neri begira. Andik, mendiko aitzulo batera eraman ninduten, Elorrio alde-rago. Ara etortzen zan artzai-antzean mutiko bat txilibitua joaz, neri jatekoa ekartzera. Aitzulo orretan egon nintzan iru egunez, eta andik zuzen Prantzira jo nun: 24 ordutan 20 legua bide, iñon egonik egin gabe».



XIIIgarren txatala  
**IRUGARREN ALDIZ GERRARA.**  
**TRENA URREZ BERTARA TA LURREZ.**  
**BASERRITARRARI BEI BAT KENDU,**  
**TA BIZKARRA BEROTU**

Etzun etsi, etzan okildu bigarren aldiz porrot eginda ere. Berrogei-tamar lagun aski zutuala zion atzera gerrari ekiteko, ta bai bildu ere luzaro baño len. Abenduaren lenengo illunabarrean Prantzi-muga igaro zuten andik onontza. Ixtillu gorri ikusi zuten gau artan. Bidasoa ibaia ur-ontziz-ka batzutan pasa zuten, eta gau artan naiko lan izan zuten Aritxulegiko arkaitzera igotzen. Auntzen oin-bidetik, bata besteari elduz, apoka, arkaitzulora arte. an tokitu ziran biaramon osoan, atertzeko bildurrez. Santa Kruz bizkortu zan berriz ere. Aren suarekin esnatu ziran Españiko katalikoak, amorratu ziran liberalak. Amadeo Erregeak ere, Santa Kruzen bildur igesegin bide zun. Laister bildu zitun Santa Kruzek bosteun mutil, eta gerra-modua erakutsi zien.

Illaren irugarrena zan. Apaiza bere mutillekin Urnietara jetxi zan, eta baita aren atzetik Arana liberala ere. Etzan aren begira egon Santa Kruz, eta burni bidean autsi-lardaska bat egin, 101garren trena geldierazi ta Fagoiagan barrena, Pikoagan barrena, Arano-mendira jo zun. Zertarako geldierazi trena? Otsa atera zuten, alegia, Amadeok egundañoiko urre-pilla zeramala Italira. Santa Kruz-tarrak, aldatzeko alkandoraz zaku eginda, baziojoazen trenaren billa. Trenaren kei-adarra ikusi zuteneai, aien poza! Aurrean jarri ta bat-batean geldierazi zuten makiñista. Arrituta zurbilduta gelditu ziran, Santa Kruzen mordoska zala sumatzean. Bat-banaka kotxe guziak arakatu ta, utsa topatu zuten.

Santa Kruzen atzetik bazebillen Arana Komandantea Oiartzueneren, Añarben, Lizarregin, Benta-Atxurin barrena, ta atzera Pikoagatik, Fabo-llagatik Ernanira itzuli zan, ezeren usmorik artu gabe. Non zebillen Santa Kruz? Aritxulegi aldean iru egunez; baño baserriz baserri zebillen gabez, baserritar liberalai ta aien ispia edo konta-katilluai ikara emanez. Oni txekor bat kendu, ari bei bat il, beleen gisa ibilli ziran iru egun aietan. Alako baserri batean otsegin zuten. —Nor da? ta. —«mikeleteak»—. Atea zabal-tzearekin ezagutu zun etxeoandreak, etzirala, ta ikara lauorrian gelditu zan. —«Jende prestua gera», ta ikulluan aurrera sartu ziran, beitegiraño.

Bei eder bat jo ta bota zuten, egun batzutako aragia biltzen zutela. Otzak atera-naiean su-ondoan eseri ziran eta gaztaiñ erreak jan zituzten. Etxekoandrea larri izan bear zun, senarra etxera arte. Alako batean bildu zan. «Zenbat balio zun bei orrek?» galdegin zion apaizak. —Onenbeste. — «Geroago pagatuko diat: oraingoz makil-zartako ederrak artu bear dituk ispia edo kontaktatillu egiten abillelako». Baita eman ere. Egun eta eguzki ez omen zan geiago ispiatzkoan ibilli.



**XIVgarren txatala**  
**SANTA KRUZ NON-NAI.**  
**ATERATZEN DU BERE ARREBA**  
**LIBERALEN ATZAPARRETATIK**

Lengoetan ezer aundirik egin ezpazun, oraingoan zerbait egingo al du. Laguntzarik izan balu, bai. Oraingoan lana pranko eman zien karlistai. Liberalak, soldadu-saïllekin inon ziran aterabideak, menditar-teak, errege-bideak, zirrikuak arrapatuz, aren atzetik zebiltzan. Denak elkarrengana jota arrapatuko al zuten. Baño Santa Kruzek bazekizkin Gipuzkoako zorrondoak. Alako erritarra, olakora, beste artara joan zala, ta askotan, erbiak ankartetik bezela igesegiten zien. Gau-lenetik alako etxean; gaberdi-aldera beste alakotan; goizean goiz, argia baño len, mendi bazterretara. Ez Aranak, ez Lojendiok ez inork, etzun arrapatzen eize ua. Goizetik emen, arratserako joanda billa non! Zangoak dantzatzen zitun. Eguberri bezperan Oiartzunen jeiki ta arratsalderako Naparroako Leitzañan. Non nai zebillen gerrara-naia biztuz. Biztu zan liberalan gorrotoa ere, ta Santa Kruz ezinda, bere arreba, ta Sasiain lengusu apaiza atxitu zituten eta kartzelara sartu. Aditzea izan zun Santa Kruzek eta, atsegin zan arekin! Ogei mutil berekin zitula jetxi zan Tolosara, Mixerikordi zarraren ondotik. Arrameleko zubira ziranean, kotxe eder bat zijoan Irura aldera. Geldierazi zuten eta, aien poza! Koronel liberala bere lau mutil-nagusirekin. Ikara zeriela jetxierazi zitun, koronelaren aita zarra ez besteak. Santa Kruz bera, zarrarengana sartu zan eta arekin joan Iruraraño. Besteak oñez, lotuta, atzetik. Apaiza ta zarra asi ziran elkarrekin. Zarrak. —«Zure arrebari ikusi batzuk egin dizkiot, eta begirapenez jokatu naitzaio». Santa Kruzek. —«Eskerrik asko, baño enazu ni tutulikatuko: zu "alako" zera, ta gañera liberala». Zarrak. —Bai, baño nik ez det ezer oiekin. —Nere arrebak ere etzun ezer inorekin, baño or daukazute itzalean. Begira gero, zer ari zeraten, nerekin ez det esaten, baño nere arrebarekin! —Agure gizagajoa daldaraka zijoan. Irurara iritxi ziranean, oñezkoak eriotza ondoan zutela uste zuten; baño arrituta zoratuta gelditu ziran askatu zitunean. Zoazte etxera, esan zien, eta atera itzazue neregatik lotu ditezuenak. Bestela... Aiek zintzo egin ere. Berriz ere berri eman zioten liberalak arreba galdua zula, tiroka josiko ziotela mutillek uzten ezpazitun eta Prantzira sartzen ezpazan. Ta ala egingo zuten, Santa Kruzek bere egi-

teko aietako bat egin ezpalu. Gau illuna zan: zotza begiari emanda ere etzan ezer ageri. Zei mutil berekin artuta urbildu zan Tolosara, baserritar-jantzian. Soldadu begiriariak «quién viver?», ta Santa Kruzek «paisano». Ala sartu ziran Tolosara. Alako aundizu liberal batengana jo zuten. Otsegin zun presaka. «Nor da?», ta, «alako», emengo nagusiaren adiskide aundia. Jeixteko azkar, ikusteko presa aundia dedala ta. —Jetxi da erdi-jantzian, eltzen dio apaizak, eta mutillek zeduzkan tokira eraman du. Ixilik ba zegoan, etziola ezer egingo, baño otsegiten ba zun, bere artan ilko zula. Agindu zion, bai, aren arrebari pakean uzten ba zion, arrek ere utziko ziola ari. Biaramonean, ango buruzagi ego jefeari gaztiatu zion, an zedukala «alako», ta arreba askatzen ezpazion, tiroz ilko zula alako ua. Ta bera zegoan tokira ekartzeko gero, ta baita bialdu ere. Berak ere askatu zun norbaiten adiskide ua, ta arreba Prantzira eraman zun.





XVgarren txatala  
**ARANORA. ELURRETAN**  
**OIN-ZULORIK UTZI GABE**

Illaren 30garrenean Santa Kruz Soroetarekin Asteasuko Illurdi deritzaion baserrian gertatu zan. Andik arma batzuk eta bost edo sei kartutxo-pillo artuta Aranorantza jo-bearra zuten, Oria ibaia Billabonaren ondotik igarota. Santa Kruz Olagan zegoan, Elduain-inguruan. Elurra ari zun eta iñon ere lurmenik ez. Iru aldetatik liberal-sailla arengana zijoan, eta elurrarekin aldegitik etzedukan: erdian artuko zuten. Nola igesegin? —Goizeko ordu bietan Leizarango ibaian gerriraño uetan sartu ta Ollokiegin barrera Billabonako zubira jo oin-zantzurik utzi gabe, ta gabe-ko amaiketan iritxi ziran Aranora. Atsegin egongo zan! Estu ta larri izan bear zun apaiza, mutillek oso auldurik eta akiturik gelditu baitziran, zuti egoteko ere gauz etzirala. Ibaietik ateratzean aldapa igo bear, eta begiak ere ezin jaso. Santa Kruzek itz bero bero batzukin bizkortu zitun, eta an erori ta emen zutitu, noizpait ere igo ziran Belabietara. Toki onean zebiltzen Elduain aldeko liberalak, Santa Kruz arrapatzeko!

XVIgarren txatala  
**AIAKO ERASOA.**  
**LIZARRAGA TA SANTA KRUZ**

Emen asten dira okerrak. Aiako eraso ontan argi aski ageri da, Santa Kruzek etziola Lizarragari onik egiten. Egia da; Agirre liberalak Santa Kruz ekartzen zionari 10.000 peseta eskeñi zitunean, Lizarragak andik amar egunera 20.000 eskeñi zitun Agirre bereala ekartzen zunarentzat. Arteraño begi onez begiratu bide zion; baño Aiako atake edo eraso ontan ezta ezagun. Andik lau edo bost egunera Lizarragak Santa Kruzi bere buruaren garbitasuna emateko agindu zion Agirreraren agindu artaz; beste-la auzi laburra ta gerra-batzarrea eratuko zituala ta. Gañera Dorrontsorok ere tiro-gaiak ukatu egin zizkion. Nonbait espa zioten apaizari gizon aundi oiek. Santa Kruzek Aiako toki au aukeratu zun, bere mutillekin itx-doteko ta indarberitzeko ta armetan ikasteko. Ontarako, eun bat mutil arbolak botatzen ari izan zitun gordelekutako. Egin zuten gordeleku aren bidez, kartutxo milaka batzuk aski omen zituten etsaiari buru egiteko. Eskatu zizkion Dorrontsorori ta Dorrontsorok ez-aditu egin zion. Atakearen egun-aurrea zan, eta Santa Kruzek jakin izan zun alabearrez, Lizarraga Zarautza zetorrela. Lengo izketaz minberaturik egon arren joan zitzaion, tiro-gai ugari emango ziolakoan. Bai eskeñi ere, bizkor aritzeko esanda, karlisten bandera nabarbenago azaldu zedin. Oraindaño etzegoan gaizki, baño emendik aurrera... «Gero galdegin nion —Santa Kruzen itzak dira— zergatik nere buruaren garbitasuna eskatzen didazu liberalak nere orde 10.000 peseta eskeñi ditutela ta?». Ezin itzegiñez gelditu zan alditxo batean.

Geroxego, bereganatu zanean, esan zidan: zer egin dezu? Gobernuak zerengatik eskatu ditu zu arrapatu orde 10.000 peseta? —Eta nik erantzun nion: nik gerra bear dan eran egiten det. Au esanda bere artan utzi nun. An zegoan Lizarraga, ni baño gizon geigorekin; etzan ordea ausartu neri ezer egitera. Orduntxe asi ziran Lizarragaren mutillak «Viva Santa Cruz»ka. Lizarragakin batean an ziran Najera ta Iñeste, ta aiek agindu zizkioten tiro-gaiak. Larunbat arratsaldean, lauterdik aldera eraso zioten suari, beren aurrez aurre zedukaten liberal-saillarengana. An ari ziran, gordeleku aren babesean, eta bostak aldera, eskuñeko saietsetik ara non datorren giza-sailla. Beretakoak ziralakoan biziago ekin zioten suari; baño laister ezagutu zuten kañoi-sua zeritela zetozela, ta etsaiak zirala. Ordun





Zarautz aldera igesegin zuten, liberalen eskuetan amar bat gizon uzten zitutela. Karlistak su ta jo ari izan ziran etxe aietako iru etxe-gizon il egin zituzten liberalak, tiroka ari izan ziralakoan. Bai apaiz bat ere, eztakigu zergatik. Kaperotxipik dionez, arritzekoa, ta Jainkoaren milagroa da, danak liberalen atzaparretan ez erori izatea.

Bitartean zer ari zan Lizarraga? —Okerreko aldera jo zak, Itziar aldera, Santa Kruz an utzita. Santakruztarren alderdiari kontu egingo ziola esanda, jotzeko tiro-gaiak bialduko zizkiola ta... nonbait zegoan. Jakin izan balu Santa Kruzek, etzun noski ekingo. Muniziorik ezpazuten Lizarragak eta, zertako etzioten gaztiatu andik aldegin zezala? Santa Kruzengana eziñ-eramanez ote zan? Gañera, Primo de Ribera, iru milla libe-ralekin Azpeiti aldetik Santa Kruzengana zetorrela Lizarraga ondo ondo-tik pasa, ta su egin-bearrean agur eginda utzi. Atsegin izango zan Santa Kruzekin! Aiako au saldukeri beltza zala esaten zun. Zarauzko izketa artan elkartzeko egon zirala esaten dute: Santa Kruz Lizarragaren men-pean jartzeko zegoala. Etzegoan toki gaiztoan arrezkero!

## XVIIIgarren txatala SANTA KRUZEN ITZAK AIAKO ERASOAZ

Egite ortaz ikus zer dion Santa Kruzek berak: Liberalai astiñaldi ederra eman bear geniela, an ekiteko gogotik, etorriko zitzaizkidala laguntzera. Etsaia urbil zan eta guk tirogai gutxi, baño geigoren itxaropenez, nai-koa izango gendulakoan. Begira egon giñan aiek gure ondora arte, ta bertatik bertara ekin genien. Tiro-gaiak aitu zitzaizkigunean, ara beste etsai-taldea eskuetik. Ekin genion laisterrari, ta aiek gu esitu naiean asi ziran. bala-jasaren tartetik al gendun bezela igesegin gendun: ni nintzan azkene-tan. Alabearrez, etsaien eta gure tartean sakan bat zegoan eta, bearririk! Bitartean illundu zun eta bakoitza bere gisa, susmoz bezela, baserri bate-ra bildu giñan. Ni ere bildu nintzan noizpait, denetan azkena. Ikusi nin-dutenean, aien poza! Oraintxe ondo gera, esan zuten. Nik berriz: mutillek, esiturik geudek! eta ala zan. Alde batetik ibai, ta bestetik etsai-taldea. Gaberdia zan, eta biaramonerako ezer egiten ezpagendun, ez genduken iges-biderik. Zer egin? Gaberdiz asi giñan, batzuk ibai barrenetik, besteak legorrez. Primo de Rivera Zarautza itzuli zan, eta aien atzetik, minutu gutxiz atzetik igaro giñan, eta ala igesegin esi aren barrenetik. Zirriku gutxi aski zun Santa Kruzek igesegiteko. Aramaioko erriko etxearen goiko sapaillotik jauzi egitea baño errezago zan ibaiaren erditik igarotzea. Ure-tan etzuten ots aundirik aterako, ibaiak berak zerbait ateratzen ba zun.

Lizarragari geroxego egin zion kartan, garbi aski ari da. Otsaillaren 4garrenean bi karta bialdu zizkion Lizarraga Komandanteak Santa Kruzi, ia zer egin zun: trenbideetaz eta Aiako erasoaz etziola berririk eman. Santa Kruzek 19garrenean erantzun zion: «Burnibidea urratzen alegiña egin det, eta Aiako erasoaz ere berri eman dizut: galdu egin bide da. Gañera elurrak galarazi egiten du mendiz ibiltzea». urrena erantzuten dio, Aiakoan bi mutil il zizkiotela, ta bakar batzuk zauritu iges-egitean. Garbi esaten du apaizak berak ere erri-gizon batzuk illerazi zitula, zelatarizkoan arrapatu zitulako. Liberalak gau guzian su-galda aundia iduki omen zuten, eta bear ba da, gizon illak an erre. Gero, Aian egindakoaren txee-tasunak ematen dizkio Gipuzkoan ari zan mutil-saldoentzat gerratoki bikaña zala ta Santa Kruz eta Soroeta an tokitu ziran. «An egon giñan amabi egunez kartutxoan begira, ta ez ageri. Noren aitzakiz? Enaiz orain-dio jabetu, baño jabetzeko bidea izango da», esaten dio ausarki Lizarra-



gari. Aiako erasoaren bezperan etorri omen ziran Zarautza 1.500 gizonekin, Naparroako ta Gipuzkoako soldadu agintariak. Esan omen zion generalari, kartutxoak aski zitutela erri ua ez galtzeko. Denen artean itza artu zuten urra-aldi ederra eman bear zitzaizela liberalai. Santa Kruzek esan zien, biltokirik obeena Aia zutela, ta, arren, kartutxoak bialtzeko. Gabez bialduko zizkiotela. Ixil-mandatarien bidez jabetu zan, etsaia iru aldetatik zetorkiola. Berriro Santa Kruzek kartutxoak eskatu, ta etzala kartutxorik. Naparroako Komandanteari argibideak eman zizkiola bear zana egiteko, bera gaixo baitzegoan. «Geroago bialdu nitun bi edo iru mandatar, nondik zetozen adierazteko, ta gure atze-aldetik su egiteko. Bazetozela uste gendun, ezpaitziguten gaztiau andik aldegitokorik, gaztiau bear ziguten bezela. Aiako zorigaitzen, eriotzen eta lapurreten kulpa, dunari bota bekio...». (Apaizak Lizarragari botatzen zion, eta emen ere ala adierazi nai du). «Ba dira Gipuzkoan mutil-saillak, iñor atzetik izan gabe, beren buruzagiekin igesi dabiltzanak, eta eraso bear luketenean ekin gabe gelditzen diranak». (Zu ta zureak, Lizarraga). «Liberalen artean ere bizi izan dira, ta pakean utzi diete. Nik generalari (zuri, Lizarraga) bear zaion begirapena ba diot; baño ez du ezagutzen Gipuzkoa, "ojalatero" alper oiei siñistu egiten baitie. Oartu bedi, ta alegiñak egin bitza, Bergarako ta Amorebietako ta alakorik gerta ez dedin...». Emen ageri dira Santa zen idurituak Lizarragarengana.

Zer ziran «ojalatero» oiek? Beti «ojala» ta «ojala» ari ziran, irabaziko al diagu, baño alperkeri goxoan egon: au ta ori egin bear, eta beti geldiegonean. Murgindok dionez, gure Gipuzkoaren lepotik jan edan egiteko, bestetako ez omen ziran, eta ala ere Lizarragak karguak eta bizibideak eman aiei. Erri batean gertatu omen ziran bost menpekoekin. Gero berriz Lizarraga zorutzen zuten berrizukerien bidez karlista gaiztoak eta libera-langandik etorri ziranak. Santa Kruzek etzun ordea nai ondoan alperrik eta ojalaterorik: zarrak, aduana kobratzeko; ankokerrak eta ankamotzak kartutxoak kargatzeko; ta gazte bizkorak suari erasotzeko. Bildur ematen zien bai Santa Kruzek ojalatero aiei; orregatik, gezurrik aski zabaldu zuten aren kontra. Erritarrak ere oartu ziran, janda edanda gastatu ugari egiten zutela aien bizkar, eta Santa Kruzen kontra esan alak esan arren, etziten siñisten. Esan zioten erritarrak Santa Kruzi, an gezurra besterik etzutela esaten, eta Lizarragaren aginduaz au ta tu eskatzen zutela, ta ojalateroen kontra dei bat egiteko. Santa Kruzek bialdu zun dei ori erri guzietara, *berak agindu gabe*, «ez jatekorik, ez dirurik emateko iñori». Orduntxe arnasa artu omen zuten erritarrak eta aldegin ojalateroak.

Baliteke Santa Kruzek gogortxo itzegitea ta iduritu geiegi izatea Aiako ontaz; baño zerbait ba zan, eta garbi aski esan zion Lizarragari berari. Elkar artzeko bide txarrak izan ziran aiek. Santa Kruzek egiten zuna obe bearrez egiten zun, beti asmatzen ezpazun ere.



**XVIIIgarren txatala  
IT'ZIARREN.  
DEBA ERRE-KEIÑUA.  
TO, BAÑO EKATZAK**

Aiatik Arruara jo zuten, goseak, eta auleriak akiturik. Otsaillaren lena zan. Larogeita amar lagun zitun Santa Kruzek oso biozgabetuak, Aiakoa ikusita. Ba zan biozgabetzekodiña. Gañera tiro-gairik ezta amar lagunentzat eskupeta bat. Andik Itziarrera sartu dira, ez noski an su-ondoan anka-zabal egoteko, elurrarekin su-ondo-giro ba zegoan ere. Ta elurra ba zan, esanik dago, aien atzetik izango zirala liberalak, oiñ-aztarna artuta. Santa-kruztarra uxa-aldia eman zituenean, aien atzetik asi ziran, baño egesi zijoanek oiñak arin. Zer egin omen zun apaizak? Itziarko alkatea deitu, errian ziran petrolio latak aterazi beste oinbeste gizonekin, eta goazen mutillak, Debako liberal-mordoa izutzeraz, erriari su arrezazteko zurrian. Biaramon goizeko lanetan Kandelari egunean, meza entzun, gosalduta, ta elurraren gañetik Debara. Itziarko amalau gizonekin eun eta lau zeramatzin. Piralak dionez, zortzireun omen ziran.

Debako liberalak,  
(Ernioko beltzak)  
Zazpi errialengatik  
Odola salduak,  
Madarikatuak.

Tiroka atera bide ziran; baño Santakruztarrak, etxeen babesean, aurrera. Erriari su eman bear ziotelakoa egin; erria ikaratu; arren! erriak ez erretzeko. Santa Kruzek bi letra egin liberalai, beren buruak emateko. Liberalak baita Santa Kruzekin izketatu ta armak eman ere. Bost milla kartutxo Remington eta beste tiro-gai batzuetaz jabe egin ziran. Gizagoak zegoan egueldiarekin, jantzi osorik ere ez ta, liberalai txamarrak kendu zizkien.

Non ziran bitarte artan atzetiko liberalak? Ba zun Santa Kruzek zela-tari edo ispia bat, izenez Erbiya: arek ekartzen zion etsaiaren berri, non zan eta nola zebillen. Debako liberalak etzekiten ezer. Urruti etzirala jakin izan balute... Santa Kruzek bazekin Erbiyaren bidez. Primo de Ribera

Itziarren zala, aren atzetik etorrira. Bitartean atzezaken lorik egin. Ta ain zuzen ere, Primo de Rivera Debara mutur batetik sartzen asi ordukoxe, bestetik ateratzen apaiza. Ala dio Kaperotxipik. zergatik etzituten bada atxitu ainbeste libarelek?— Orain ezpaitzeuden esku-uts Aian bezela. Deban zeuden liberalak agitz gutxi bide ziran. Santa Kruzek ogeita amalau eskupeta besterik etzitun bildu, zitutenak kendu arren.

Oraindio Deban ari zala, Olazabal jauna apaiz bat lagun zula etorri zitzaion, arren, Lesakan zeduzkan iru liberal zaurituak aien eskuetan ipintzeko. Apaiz ori Gurutze Gorriarena esaten zaion elkartasunekoza zan. Asi zitzaion Santa Kruzari, alakoa ta olakoa zala «Cruz Roja» ori, elkartasun errukitsua zala zaurituentzat, eta orretara. Gauz ederra, esan zun Santa Kruzek. —Ala derizkiozu? erantzun zion Olazabalek. Ainbestekoak esaten ditute zuregatik eta... Erdirik ere ez det siñisten nik. —Neri ajola gutxi esan oiengatik, ni zuzen ibilli ezker, esan zun Santa Kruzek. —Biotz onekoa ta barkakorra izatea gauz ona da. —Zer bear dezu bada, Olazabal? —Lesakan zauri daukazun iru liberal aiek. —Bai, baño lenik emazkidatela iru nereak. —Bai al ditute bada? —Bai noski. —Ala ere emazkiguzu, arren. —Eztago ematerik Santa Kruzenak Kubara bialdu zituten.



**XIXgarren txatala**  
**SANTA KRUZEN BIOTZ GOGORRA.**  
**BERE MUTILLEKIN**

Karlista buruzagi epel batzuk zillarra nai omen zuten, ez gerra. Mutil gizagajo batzuk, obe bearrez, Prantzira aldegin zuten, eta an ikusi zitun Santa Kruzek, gosea ta zarpilla zeritela. Santa Kruz bera, atxedenik gabe, arontza ta onontza zebillen, zibillengandik aldegingo ba zun. Soldadu gizagajoak, beren nagusiengan zintzotasunik ikusten ez ta, bakoitza bere aldera banatzen ziran. Tripazinkeria ta gaiztabidea besterik etzan ageri buruzagiñ artean, eta, nola maite izango zituten? Bai ordea bere mutillek Santa Kruz; maitetxo! Kolonbian zegoala, azken-aldean eskribitu zion Tolosar Pildain batek, eta apaizak bai erantzun ere: A zer aldi ona eman didakean ire kartarekin! Nere errialdeko aizeak artu zetiat irakurri bitartean. ni aztu nere mutil prestu aietaz? Egun latz aietan nere lagun ian ziran aietaz? Zuek asko maite ninduzuen bai, ta zintzo ibilli zifñeten nerekin; baño nik ere maite zinduedan, eta estimatzen zinduedan, zuek uste baño geiago. Ire kartan diokanez, alderdi oietan nitaz oroitzen dituk bat baño geiago. Guziz poztu natxok berri onekin, eta bakoitzarengana esker ona diat. Zuek betiko utzi-bearra bai neretzat erdiragarria...! Emaizkiek esku-muñak nere adiskide guziei bakoizka, ta esaiek, ortik aldegin ezkerokoan nere otoitzetan gogan iduki ditudala. Aspaldiko mutil oiek beren zartzaroen iskribitu diote apaizari, ta karta oietan ageri da maite zuten etzuten. Oietan Santa Kruztarik sutuena, bere Sekretario zan Kaperotxipi, erioztara arte Argentinan bizi izana. 1914garreneko Azaroaren lenean ikus zer esaten dion kartaz: «Berrorez askotan galdegiten dit kartaz Eusebio Errandonea Beratararak. Bai omen zuten etxean orretarako bat, kuttuna bezela gordeta zeukatena, baño Deustoko jesuitai bialdu omen zien. Neri eske ari zaizkit, arren eta arren baño, ez daukate arturik! Erretrato ori utzi baño beste edozer utzi naigo nuke». 1915garrenko Agorraren 6garrenean berak: «ogei edo berrogei legua bakarrik ba genduzke tartean, pozik etorriko nintzake berrorngana, sakristau bederik izateko. Baño, aldean dago berori!» Pedro Balentziagak Zumaiaitik: «zenbatek atsegin lukete berori ezagutzea nik bezela! Oraindik etzaigu itzali berornganago maitetasuna, ta emen gaude Erregeari baño len berrori serbitzeko». Pildain gizagajoa il zan 1919garrenean, Santa Kruzen izena ezpañetatik zeriola. Lentxeago bialdu zizkion Santa Kruz mixiolariari 320 peseta, adiskideen artean bil-

duak. Oraindik ere ba zitun adiskideak, eta adiskide maiteak. Bilbaotik 1912garrenko Uztaillaren 16garrenen eskribitu zion arekin gerrate osoan ibilli zan mutil aietako batek. «Orain dala gutxi, berorren soldadu Oiartzuar batekin ari nintzan izketan. Berorren erretratoa erakutsi nionean, negarrari ekin zion gizagajoak». Olako mutillak zitun Santa Kruzek. Erabat Prantzira aldegin bear zula esan zienean, baionetak lurrean sastakatuta esan zioten: «guk etzaitugu utziko bada». Makilkara ederrak ematen zizkiela zertanbait utsegiten zutenean? Bi aldiz guzia ere. Beñola ostatu bateko etxeoandrearekin lotsagabetuxe zalako mutil bati, ta pagatu nai etziolako. Don Manuel, begira zer egin didan zure mutil batek. Ezagutuko zenduke? —Bai. —Ekarriazten ditu bere mutillek eta «au da», esan zun etxeoandreak. Bizkarra bero bero eginda bialdu zun. «Ik ez dek merezi nere mutillen artean ibiltzea». Beste bein moxkor bati. Geiago iñor astindu bearrik etzun izan.

Santa Kruz begi begiko zuten Lizarragaren taldeak ere. Bein batez, Zarautzen zegoala, len esan degun bezela, Lizarragaren mutillak Viva Santa Cruz! otsegin zuten. Lizarragak Santa Kruzengana mutillek pasako zitzaizkion bildurrez, goragoko maillak eskeñi zizkien. Nik ikusi det Leturia ta Leturia kapitanaren garbitasuna, apaizarengana pasa etzalako gorago altxa zunekoa.

Gipuzkoak ere maite zun noski, erri-jendeak beintzat. Il zan baño len atera zuten, jesuita zala, eriotz-ordurako Loiolara etorri nai zula. Etzait iduritzen ala danik, baño etortzeratu balitz, Gipuzkoan etzan geldituko noski anka jaso zezakenik ua ikustera joan gabe. Alako jende-talderik etzun bilduko noski Uzkudunek.



XXgarren txatala  
**IRUNGO BELTXA, ZELATARIA,  
 GEZUR-APAIZA.  
 GERRA ATERTU GABE!**

Santa Kruzen burua diru ordezkari zutenean, gibelurdiñek bezain ugaritu ziran ispiak. «Enun uste esan oi zun Santa Kruzek, nere buruak 10.000 peseta balio zitunik». Diru ua eskuratu nai zutenak erne asi ziran bada. Irungo beltza an azaldu zan Naparroan, Prantzi-mugako erri batean. Galdegiten dio Santa Kruzek: agindua betetzera al ator? —Zer agindu? —Azpi-suge ori, ixillik ezpai ago illaraziko aut bertan. Santa Kruz odolzale arek, zer egin zun? Ikara ederra eman besterik ez. Bere mutillen aurrean lotu, ta erriaren baztar batera atera «i bezelakoen bildurrik eztiat», eta atzeko aldean ostiko bat emanda utzi.

Gurdirartean, garopilletan, ibaietan izkututzen ziran ispiak, Santa Kruz igaro bear zun tokitik. Orregatik bada zebillen erne apaiza. Bildurtia ta fiakaitza zala? nork azalduko luke burua lasai ario orretan? Bein ola, bialtzen diote apaiz-jantzian, norbait il zulako ota zedukan bat, arekin konpianza artuko zula, ta geroenean il egingo zula. Oi zun bezela, Santa Kruzek bi mutil tartean ekarriazi zun bere begietara, baionetak ageri zitu-tela. Ikusi orduko, Santa Kruz iduritu gaiztoak artu zun. Apaiza ote zan ez ote zan jabetzeko, latinez galde errez batzuk egin zizkion. Tutik etzun erantzun gezur-apaiz arrek, eta tiroz botarazi zun lizar baten ondoan.

Ixtillu pranko atera dute Santa Kruzek egin omen zulako bandera batengaz, «gerra atertu gabe», ziona. Orrek ikaritzen ditu beste aldeko batzuk, Bai gizon odolozalea! Badakigu, Santa Kruzen buru ordezkari 10.000 peseta eskeñirik zeudela. Peseta oien atzetik ispiak non nai aterako zizala esan bearrik eztago. Aiek izutzeko zerbait bear zala ta Santa Kruzen berri gabe Hilario zeritzan batek egin zun bandera ori. Santa Kruzen bigarren mutil-taldea Hilarioren agindupean zebillen eta aiekin asi zun eramaten. Apaiza oartu zaneko gorderazi egin ziola dio Kaperotxipik: Santa Kruzek berak etzula ikusi ere. Ori da guzia. Ala ere Beran arrapatu zutenean, ori entregatzeko agindu zioten Balde Espina eta. Eztakigu berekin zerabillen, ala Hilariok zeraman. Dana dala, gerrakoan gerrakoan bezela ba zegoan gerra egin-bearra. Erregearen inguruan bizi modu lasaia ari zuten aiek, etzuten gerra aundirik nai. Etzuten aiek inoren odolik ikusiko, ez berenik ere: ez Santa Kruzek adin bat izardi atera ere, Jaungoikoaren eta Euska-lerriarengatik.

XXIgarren txatala  
**ARETXABALETAN ANDRE BAT  
 TIROZ JOTZEN DU.  
 LEKUNBERRIKO ANDREA  
 LARRU GORRITAN**

Amaika gezur sortu dute liberalak gertakari ontaz. Aundienak Segobia delako batek. Andre ori aur-giteko omen zegoan eta aren karraxietaz urrikaldu gabe, belaunikarazi ta tiroz il omen zun. Tiroz illerazi zula egia da. Zergatik? Iru aldiz ispia-lanetan arrapatu zulako. Santa Kruzen saillean bai baitzebillen Erbiya esaten ziotena? ua liberalak arrapatuta Vitorira eraman zuten. Il ote zuten etzuten, etzekiten. Aren andreari itz eman omen zioten, berak ispiatzekoan laguntzen ba ziten, senarra itzuliko ziotela: andreak berak ala asmatu noski. Beñola andre au arrapatzen du Santa Kruzek, gonaren josturean izkutatuta zeramazkin paper batzukin; libaralantzat alegia. Santa Kruzek esan zion, begira zezala; irugarren aldiz arrapatzen zunean tiroz ilko zula. Bigarren aldiz arrapatu zutenean, esan zion Santa Kruzek, bizitzeko diña emango ziola, ta etxera biltzeko. Andik ille-bete batzutara berriz arrapatzen dute Aretxabaletan, saski bat ogi zera-mala. Ogi baten mami-tartean, paperak berriz ere, Aretxabaletako liberal batentzat. Oraingoan konpesarazi ta tiroz ilerazi zun. Aur-giteko ote zegoan andre ua? Ikus zer dion Pedro Zubizarreta Aretxabaletarrak 1921garren urteko Martxoaren 14garrenean: «oraintxe itzegitea egin det andre aren aide batzukin, eta esan didate, ez daudela oso seguru, baño aspaldi artan noski, umerik etzula, ta 42 urtetik gorakoa zala». Andrea aurgiteko agiri agirian zegoala ta olako barrikeri pranko asmatu da; baño asmakeri oiek eztute egiaren izpirik ere.

Lekunberriko andrearena ere zabaldu da, beste gezur askoren artean. Larrugorrian utzi ta lumaz bete ta astogañean erabilli omen zun erri guzian barrena. Au ere egia eztago badakigu. Oraindik bizi da bat edo bat Lekunberrin, orren berri dakina, ta ori ondo gogoan daukana. Nere aziterrian, Uitzin, entzunik nago Zakarias Astiz jaunari, Lekunberriarra bera, ta ezkontzaz Uitzira joana, Santa Kruz oraindik Lekunberrira gabea zala, ta ark ez baño beste batek egin zula egiteko ori. Astiz jauna ezta batere Santa Kruztarra. Oraindi bezi da ta osasunean dago: galdetu bedio. Ezizena «Katxia» zun batek egin omen zun. Irañetaren saillekoa bera, ikus



zer dio Santa Kruzek berak: Ni Lekunberrin sartzean ikusi nitun Lizarragaren mutil batzuk, andre bat astogañean zeramatera. Ezin gelditu nindeken an, eta naigaberik aski eman zidan gaxoak. Presarik izan ezpanu, mutill aiek artuko zituzten noski bereak eta asto beltzarenak.

Bi gertaera oek, Aretxabaletakoa ta Lekunberrikoa, puztu ditute ta arrotu ditute ta itxuragabetu ditute beltzak, nai duten bezela. Olakoa pranko asmatu diote Santa Kruzi, baño ezin egiztatu. Karlita epeletan ere zabaldu dira, bai bear baño geiago, ta Lizarragak eta Dorrontsorok eta, belarriak erne zeduzkaten olakoak entzuteko. Orainsu atera dan liburutxo batean au esaten da. Santa Kruzengatik orrelako izugarrikeriak entzunda, Lizarragak auzia garbizeko agindu ziola Alday jaunari. Ibilli omen zan baserriz baserri, ta baserritarrai ezin omen zien ezer atererazi. Berak dionez, bildur omen ziran Santa Kruzek gero jorratuko ote zitun. Alday jaunak ori asmatu ba du, nik ere ba det eskubidea asmatzeko. «Eztuten ezer esan, etzekitelako». Santa Kruz Ameriketara joanda 40 urte ta geiagoan, zeren bildur izan dute bada? Iñor ez al da ibilli egite orren berri-billa? Badakigu asko ta asko ibilli dirala. Ez da nik ez da esan bear. Gu ere ibilli gera, paperetan edo ordun bizi ziranen ezpañetan olako odolkeririk edo beltzekirik arkitzen ote degun. Baño gauza jakiñik ezta ageri. Bai gizon zorrotza zala, ta egitan ari zala gerran, lengo gerrateko saldukeriak ikusita; oraingo gerrateko belaxkakeriak ikusita. Olako gauzik agertuko balitz ixilik egon bearko genduke.

## XXIgarren atala BERASTEGIKO ALKATEA FUSILATZEN DU

Oraindik gogoan daukate inguruko zarrak, Berastegiko alkatea pusilarazi zula Santa Kruzek. Zergatik ote? Salatarizkoan ari zalako. Murgiondok dionez, inguruko errietako alkateai eriotza eskañi ziten, beren errietara karlistarik azaltzen zanean gaztiazten ezpazioten. Alkate au zan bada liberalen konpiaztaekoena, ta aiekin ixil-gordeka zebillen jauntxorik nagusiena. Murgiondoren esanarekin batera dator Batista Ormaetxeak aitortzen duna. Santa Kruz Berastegin zegoala agindu zion alkateari goardi bakar batzuk ipintzeko Gaztelu-aldeko gañetan, liberalik ba zetorren ere. Zer egin zuten aiek? Korneta jo, liberali adierazteko. Ordun arrapatzen du Santa Kruzek alkatea, ta San Lorenzo-gañera eramanda lau tiro emanerazi zizkion.

Emen gertatzen dan Batista Ormaetxea au nere aita da. Aurrenean esan dedan tolosar aren paperetan eta garbitasunetan irakurri nun aitaren aitortza ori, ta berari galde-nai aundia sortu zitzaidan. «Etorri al zaizu norbait, Berastegiko alkateaz, Santa Kruzek pusilatu zunaz, galdegitea?» —«Bai gizona bai, eztakit zenbat etorri diran ori galdetzera: nekarazi naute». Len esan dedana, irakurlea, Santa Kruz etziteken etorri Gipuzkoara eriotzaren azpian, eta ala ere baserritarren bildur. Ustekabean eta ez-ezagunean etorri izan balitz, Aramaion edo Ernion edo Oartzunen edo beste zokondoaren baten etzitzaion ostaturik paltako. Ua Ameriketara zala ze bildur dute? Ta galde ta galde ibilli diran oiek, zer garbirik atera dute aren kontra? Ibilli dira, bai; egiñalak egin ditute. Ta ez esan nere aita Santa kruzterra danik. Lizarragarekin ibillia da ta Santa Kruzengatik amaika gauz entzuna. Bein galdegin nion, ia zer zerizkion Santa Kruz apaizaz, eta makur samarra izan bear zula. Zergatik? eta, eztakigu bada guk, ainbeste gauz esaten due ta. Ortatik atera da Santa Kruz gaiztoa: liberalak eta karlista giztoak asmatu ditutenetik. Arritzekoa da! Piralaren gezurrak, arek asmatu beriala, entzun ditugu Euskalerrian eta euskeraz. Gezur oiek aizatzen naiko lana badago, ta ez dira berealakoan ixilduko; baño goiz edo berandu, egia nagusi aterako da.





XXIIIgarren atala  
**LIZARRAGAK SANTA KRUZ**  
**ILTZEKO AGINTZEN DU**

Lizarraga, Gipuzkoako soldadu karlista guzien agintaria, gizon bizkorra ta ernea zala esaten dute batzuek; ezereza ta gizagajoa beste batzuk. Ikus zer dion Murgiondok: «gizon zaiñ illa ta oartugabea, berrogeita ama-sei urte zitun gerran sartu zanean, eta asmo onez sartu zan karlistetan; baño pake-denboran ua soldadu ona. Beti Elizbarrenean zegoan: mojan kapillautako geigo balio zun gerrarako baño. Oso sarritan Jauna artzen zun, eta bere soldaduei errosario errezarazten zien beti. Katoliko ona ta Elizkoia zan noski». Santa Kruzek dio gizon ona ta piña zala, baño gizagajo siñis-errex bat. Orregatik ojalateroak maite omen zuten. Ba zun berekin indarra ta dirua ta naiko guzi, baño etzun ezer aundirik egin. Bizkorra izan balitz, geroko Diputazio karlistak etzun bialduko Aragoara karga arekin berarekin: etxean ere gerrari onan bearra ba zegoan. Astearsu alde artan egonari ederretsi omen zion, eta gastatu besterik ez omen zun egiten. Liberalakin belaxka samarra zan beintzat, ondo etortzen zalakoa egia ezpada ere. Bein batez txarki omen zegoan pulmoni-miñez. Bere soldaduak oetxoan erabilli omen zuten zenbait egunez eta oso txarki zegoala oartuta, Elgoibarko gaixo-etxean utzi. Elgoibarko liberalak jakin, norbaitek aopetik esanda, Lizarraga an gelditu zala gaixorik. Jo dute Elgoibarko gaixo-etxera, bi aldiz irauli dute azpikoaz gora, ta... ez arkitu zantzurik ere. Etxeak zitun zoko, arandegi, ganbara ta gañerako, begiratu omen zituen, baño txoria zegoaneko gelarik ez iriki, begien agerian ba zegoan ere. Nonbait liberalak etzuten oso etsai Lizarraga. Santa Kruz izan balitz, azkar billatuko zuten noski. Libaralakin ondo etortzen zalako ori beltz samarra da, ta baliteke Santa Kruzen iduritu gaiztoen bat izatea, baño zerbaiten itxura ba du. Pazkoa Garizumeko egunez, Apirillaren 14garrenean, Lizarraga Astigarretan omen zegoan 1.600 gizonekin. Ba zitun etsaiak Azpeitin, Azkoitin, Zumarragan, eta gizatalde bat atzetik zetorkion. Etzeduken bada Elosu-mendian barrena, Pagotxuetako tontorretik aldegitae besterik. Oinbesterik ere entzun egin gizagajoak, eta etsaiak eraso egin zion. Egiñalak egin aldegiñaz, Artetxerrekara jo omen zuten gizon ta zaldi amilka. Elosuko apaizak ikusi ta aitortu. Zergatik etzuten liberalak bere artan esitu Lizarraga? Kastillo liberal buruzagiak nai izan etzulako, adiskide baitzun. Zumarragan egon ainbeste gizonekin

eta Artetxerrek an aldegitae galeraziz bere artan itxi zerakela, ez ta mugitu ere Zumarragatik. Marmari pranko atera omen zuten gañekoak egite ontaz. Ojalateroak ere aren inguruan ederki bizi ziran pake goxoan, Eukallerriaren ondapenerako. Nolabait maite zuten Lizarraga, ta eziñ ikusi Santa Kruz! Lizarragak edozein mutil jasotzen omen zun bere taldean: ala sortu zan nabarkeri ta gaiztakeri pranko karlisten soldaduetan. Lizarraga geldí-egonean eta Santa Kruz beti ibillian: okerrik egiteko biderik ere etzien ematen. Lizarraga, gizagajo bat zan gizona zanez; baño soldaduz aul ezerez bat. Santa Kruz bezain biozgabea ta odoltzalea etzala? arengatik ere esaten ditue bada, liberalik etzula il alerik ere, baño bai lau karlista gutxienez tiroz josi: Patxi Arbelaitz, Esteban Indart, Goiaz-Bidaniko Intxusa esaten ziotena, ta beste karlista gazte bat. Intxusa ori Santa Kruzi erauntsia zalako omen. Entzun gizajoaren azken-itzak: «nere pamili guzia karlistengatik gorriak ikusirik egon, ni aurrenetik atera gerrara, ta orain tiroztu egiten naute. Etsaiak ez ta geronak! Auxe det damurik aundien». Liberalakin bioz-beragoa zan. Ba zan alako Osta tenientea, Andres eta Esteban Arteaga ta Prantxisko Beloki il zituna. Lizarragak barkatu egin zion bada, ta gañera soldadu karlisten erakustun egin. Azkenean Santa Kruz eskuetan erori zan, gero ikusiko degunez.

Lendanik ere badakigu nola zebiltzen Lizarraga ta Santa Kruz. Apaizari agindu izan zion, mutilletako batzuk, Azpeitiko saillera aldatzeko, ta kendu ere ba zizkion; Nantetik ekarritako kañoitxoaz ere jabetu zan Lizarraga; ta batez ere, Aiako erasoan etzion lagundu agindu bezela. Lizarragak, Gerra-Batzarre nagusirako zula ta bereganatu nai zun apaiza; baño ark igarri zion, etzala artarako. Karlista nagusien adieraziz joan zitzaizkion Santa Kruzi Berara, Luziano Mendizabal jauna, Patrizio Orkaiztegi jauna ta Andoaingo Larreta gazteena, arren, zetorrela Lizarragaren menpera, ta batean geigo egingo zutela. Baño bitartean adierazi ziten Santa Kruzek, Montserrat koronela preso atxitu zula, ta Lizarragaren paper bat kendu ziola, arren, Santa Kruz atxitzeko ta tiroz botatzeko, ziona. azkenik agerian, eriotzarako galdu zun Gipuzkoako Gerra-agintari nagusi orrek Santa Kruz, biurria ta eskurakaitza zala ta: arrapatzen zutenetik il orduko beta emateko, ondo iltzeko prestatu zedin.

Ajola gutxi ala ere Santa Kruzi. Tolosan iru liberal pusilatu zitula esaten dio Lizarragak Eliori, berari berri eman gabe, bere eskubidez, eta odolzale bat zala. Liberalak bera ezin arrapatu baitzuten, aren adiskide ta lagunekin makur jokatzan ziran. Albizturko baserri batean Santa Kruzen adiskide aundi bat bizi zan, Mugertza izena. Adiskide zulako, ez bestegatik il omen zuten beltzak. Ordañak artu zituzten apaizarengandik. Goiz



batean Tolosara jo zun sei mutillekin. Tolosako Zumardi txikian iru begirari edo zentinel atera zitzaizkion. Gaizki-esaka ta eskainka ta ekin-naiean asi omen ziran, eta Santa Kruzenak tiroz bere artan utzi. Tiro-otsetara zerkausi aldetik an datoz beltzak. Eriosuar aldegiten du apaizak Zumardi aundi aldera. Bidean dagon pabrikako leio betetik beltzetako batek eskupeta zuzentzen du Santa Kruzengana, ta , asmatutko ote du? —Etzun utsegingo noski, emakume batek besotik elduta saiestu ezpalio. Bidea gora Gaztelura sartu zan apaiza.

**XXIVgarren txatala**  
**KAPEROTXIPI KARTZELAN.**  
**SANTA KRUEK EGOZKUE**  
**PUSILERAZTEN DU**

Badakigu nor zan Kaperotxipi: Santa Kruzen ixilgordari edo Sekretarioa, ta aretaz ainbeste berri on utzi dizkiguna.

Berak esanda dakigu, Apirillaren lenetan, Illarratsuren ondoko base-  
 rri batean zegoala, Arrillaga gudari-burua azaldu zitzaiola Lizarragaren  
 aginduz. Lekunberrira joateko. Igesezin omen zezaken Kaperotxipik,  
 baño ezer gaiztorik etzula egin ta, ala lagun egin zion Lizarraga zegoan  
 tokiraño. «Lekunberrira giñanean —dio Kaperotxipik— sarrerazi nindun  
 Lizarragaren gelan. An zegoan gizon bizar-zuri bat. Aurreneko aldiz  
 ordun ikusi nun nere nagusi Santa Kruzen etsaia. Bertatik bertara adiera-  
 zo zidan, atxitua nintzala nere zazpi mutillekin, eta aren kontra ezertxo  
 ere egiten ba nun, pisilaraziko nindula. Nedukan kartera kendu zidan,  
 amar amabi milla errealekin artu-agiririk eman gabe. Kartzela zain nere  
 adiskide aundi bat zegoan: Enparan, gerrari-burua. Esan zidan ixilka,  
 agindu zorrotzak zitula ta alditxo batean irauteko; luzaro baño len izango  
 nula igesegiteko aukera; Lizarragaren eta Iturberen mutilletan ba zitula  
 adiskideak, asko ta zintzoak ala ere. Enun igesegiteko asmorik, baño ikusi  
 zer gertatu zan: Lizarragak bere mutil-sailla Azpeititik Zumarragara alda-  
 tu nai ta asi zan bidean bere aiekin Gerra-Batzarre nagusia ta diru-zaia  
 aurretik bialtzen zitula. Pazkoa Maiatzeko zan ain zuzen ere. Eibarko bel-  
 tzak Elosura ta inguruetara atera ziran, beren mendi-bazkari aietako bat  
 egitera. Baño an patxaran egon-bearrean karlistai galarazi egin zien bidea  
 ta atxitu egin zituten bakar batzuk, eta aien artean diru-zaia, ogei milla  
 pesetarekin. An zeramazkin nere iru milla pesetak ere. Liberalantzat azke-  
 nean! Nik bitartean igesezin nezaken baño ez nai, igeslaritzat artu ez nin-  
 tzaten. Araotzen geundela, egun batzuetako baimena eskatu nion Liza-  
 rragari, oñetatik gaizki nengoala ta. Ala izan ere. Sendagilleak ikusi nin-  
 tzala agindu zun, eta arek, atxeden-bear gorri-gorrian nengoala. Zoaz  
 bada, Kaperotxipi, esan zidan Lizarragak, eta itzuli zintzo, nere mutillen  
 artera. Nik aterako zaitut gizon. Nik enion itzik eman. Andik bi egunera  
 Leitzara bildu nintzan Santa Kruzengana, ta nagusiak esan zidan ikusi  
 ninduenean: "gizona, ez aiz-bel-bela etorri". Ene duken asmorik Lizarra-





garengana itzultzeko. Enijoala oartu zanean, igarriko niola esan omen zun; baño Santa Kruzek erabat aldegin Don Karlosen alde jarraitu nunean, etzidan ezer egin, soldadu-maillan ez igotzen eragozte baizik. Eztakit gero igoerazi ba nindun ere. Nantesen nengoala gaztiatu zidaten Komandante egin nindutela; baño badakit ori zergatik ziteken: Erregeak berekin batean erbestera jo zuten buruzagiei ta kargudunei egin zioten mesedea baitzan. Ajola gutxi neri igotze orrengatik, ezpainun gogorik soldadutzarako. Ederki nengoan ni Aizarnan eskola-maisu ta organista, gerra asi zanean».

Konta dezagun Egozkueren pusilatzea. Valle-Inclanek asmatzen ditu sekulakoak, baño santa Kruzek berak esango digu egia: «Egia da bai, Egozkue fusilarazi nula, baño zertako agindu zun arek nere Olarra ta Errotari fusilatzeke, ta zertako ari zan azpitik dirua ematen ni illarazteko? Ni iltzeko agindua zutenak berak esan zidaten zer asmo zun, eta aiek etzutela alakorik egingo. Egozkue aitortu zun bere utsegiña, ta arren, barka nezaiola eskatu zidan. Nik barkatzen diat, baño gerrak ez dik barkatzen, esan nion. Damuturik eta konpesaturik il zan». Kaperotxipik ateratzen du gañera, Irungo beltzakin adiskidegoan zebilela Egozkue ori; berak ala aitortu zula, parkatuko ziotelakoan. Santa Kruzek berak il zula? Ez; berak etzun iñor il. Egozkue au, alako Hilario Zendoia begi-okerra esaten ziotenak txarotu zun.

## XXVgarren txatala SANTA KRUZ LIZARRAGAREN MENPERA: LEKUNBERRIN

Lekunberrin izketatu ziran Lizarraga ta Santa Kruz, elkar artuko ote zuten, baño itzegin da itzegin da etziran konpondu. Lau egunetz gero, kartaz esaten zion Lizarragari Santa Kruzek:

«Lesakatik, 1873garrengo Maiatzaren 11garrean.

Adiskide prestua:

Ogei bat egun dira nik eskribituz nere burua Lizarragaren mendean uzten nula (bigarren aldiz) eta poztu ziran danak, konponduko giñalakoan. Lizarragak ala itzeman omen zien nere adiskide batzuri. Baño egunak joan, egunak etorri, ta nere eriotzako sententzirik entzun atzeratu. Abarzuzako erasoaldiaren berri garai artantxe izan nun, eta ala ere laguntzera atera nitzaiotan, liberal-saill aundia zala ta. Baño Iribasera iritxi nintzanean jakin izan nun Lizarraga Lekunberrin zegoala, ta ara jetxi nintzan. Atsalde artan luzaro itzegin gendun biok, baño ez gendun elkar aditu, alko eskeak egiten baitzizkidan, alako aukerak eskatzen. Bere artan gau egin gendun biok, eta biaramonean ezer neri agindu gabe, bere mutillekin aldegin zun. Ordubetegarrenean nik ere aren joera artuz, Uitziko gaña artu nun. Laguntzale bat bialdu zidan, aren atzetik Leitzara joan nendila. Uitziko gañetik ofizio bat bialdu nion, itzez konpondu ez giñen ezker, eskribituz adierazten niola, erabat elkar artuta gerra egin genezan. Au esaten nion alde aldera:

1. Nere eriotz-epaia atzeratzeko eskribituz. 2. Nerekin beren gisa etorri nai zuten mutillek uzteko neri. 3. Itzez Lekunberrin neri esan zizkidan salaketak gezur utsa zirala ta eskribituz ipintzeko, nik ere bereala erantzun nezan; bestela enula ibilbiderik aldatuko.



Mandataria bialduta Uitzira jetxi nintzan, eta an egon nintzan erantzunaren begira, atsaldeko bostak arte. Alper-alperrik: nere gogo ona ta menpera-naia aintzat artu gabe, Goizuetara jo zun eta nik Leitzara gau egitera. An nere lagunak esan zidaten, nere eskabideetara etzala etorriko; apaizak beren egitekoetan ari bear omen dutela. Muziñ ori neri egiñ arren, atzetik joan nitzaion, bidean okerren bat gertatu litioken bildurrez, giputz gazte gizagajo aietaz kupituta. Gabeko amarretarako Lesakan nintzan, eta biaramon goizeko zortzi terdietan Lizarragak dei egin dio nerekin etorri dan buruzagi bati, dijoala Yantzira, ni aipatu ere gabe.

Beraz, nerekin adiskidetzeko noiz edo noiz azaldu dun gogo, azal-uskeria ta itxurakeria da. Garbi garbi itzegingo det oi bezela: ez det eramango aurrerakoan olako muziñik, eta ez diot bururik makurtuko. Jakiñaren gañean jartzen det, eta adierazi dezaiela nere adiskideai ta etsaiari, nere jakabidea.

Zure adiskide,

M. SANTA KRUZ».

Santa Kruzen itzalak ez bide zion atsegiñ ematen Lizarragari. Iru aldiz batak eta besteak ere elkartu-naia azaldu zuten, baño nork bere aukerara nai. Santa Kruzek bere erara egin nai gerra, ta Lizarragak eziñ eraman, berak baño ikara geigo sartzea apaiz kozkor batek. Sar zedila Elizan. Orregatik etziran konpontzen. Santa Kruzek gerrari utzi balio ta bere egitekoetan sartu izan balitz, etzun etsai izango Lizarraga. Beraz, etzun nai Lizarragak gerrarako biek elkar artzea, baizikan apaizak andik aldegitza, beñ baño geigotan adierazi zunez.

## XVIgarren txatala LASARTE APAIZA. OSTAREN PUSILATZEA

Kruz Otsoak egunari bat atera zigun, egunero gertatzen ziran gauzak apurka jalkitzen zitula: Maiatzaren 13garrenetik Garagarrillaren azkenaraño. Andik artuko ditugu gertaera banaka batzuk. Lasarte apaiza (Portuetxe) Santa Kruzekin zebillela, Egozkueregana alderditu zan ibillian ibillian. Onek Dorregarayri berak nai adiña aizatuta kontatu zion Egozkueren pusilatzea, ta obeen obeenean, Santa Kruz utzita, Lizarragarengana jo zun. Santa Kruzek esan izan zion, apaiza zalakoari esker, bizia barkatuko ziola ta andik aldegitako, Egozkueren atzetik joan nai ezpazun. Lasarte berriz asi zan asmatu ta esan, eta beste etsai guziak baño kalte geigo egin izan zion Santa Kruzen izenari. Lasarte apaiza zala ta, siñestu egiten bide zioten. Zer esan zun bada Lasartek? Asarre aundi bat izan zula Santa Kruzekin, eta onek pusilatu nai izan zula, baño «begira» esan ziola: «Jaunaren serbitzaria iltzen ba dek, igarriko diok ire izena nola zikinduko dekan», eta au entzutean, bizirik utzi zula. Ederki asmatua Santa Kruzen kontra.

Beste gertaera bat ere ba degu, bakoitzak bere aldera kontatzen duna: Ostaren pusilatzea. Zergatik tiroz josi ote zun Santa Kruzek gizon au? 1873garrengo Ilbeltzaren 26garrenean iru gizon il zitun Osta onek Aian: Juan Andres Arteaga, Esteban Arteaga, ta Jose Prantxixko Boloki, iruek Ernialdearrak, Santa Kruzekin batean Ernialden bizi izan ziranak, Osta onen anaia koronela Usurbilen illa zan, Santa Kruzen kontra sutan ari zala, zazpi egunez lenagotik, eta anaiaren ordaña artzeagatik, irurak il ditzek alajaña! Eriotz auk eginda Elgetara jo zun, Sarasola mikeletearekin, an zegoan gerra-etxetxo zaitzera. Ara inor etzetorrela ikusiki, inguruko gazte-jendearekin izketara joan oi ziran. Alako batean karlista-sail batek otsegiten dite, tenk, eta Osta eskuetara zitzaien, baño Sarasola igesi asi zan eta bala batek arrapatu. Karlistengana tiroka ari zala, erori ta bere artan gelditu zan. Gaztiatu zitzaion Lizarragari —Ostaren aitaren adiskide baitzan— eta Lizarragak erantzun zien, etxalde oneko gizona zala, ta edukitzeko; soldaduzkoa mutil berriei erakusteko balioko zula. Santa Kruzek ekarriazi zun apaiz bat, eta Osta teniente-ordea, konpesatu ta il zan.

Belaxkakeri oiekin etzedukan Lizarragak gerra irabazirik!



## XXVIIgarren txatala ENDARLATZA

Santa Kruzek Prantzira egin zitun joan-etorrietan, Nantesen zurezko kañoi kaxkar bat erosi zun. Julio Urkijok esaten du, Isidro Ortiz Urruelak eman ziola esku-ekusizat Santa Kruzi. Eztakigu nondik atera dun berri ori. Baliteke Isidrok emandako diruarekin erosi izatea. Apaizak berak Nantesen erosi zula dio beintzat. Karabineroak aurrenean ixeka egin zioten kañoiari, baño geroan bai negar ere. Erri-jendeari emorrazazi besterik ez omen zuen egiten mugazai oiek, eta parrari eraso zioten, bai baitzekiten balarik etzerabillela aukeran Santa Kruzek. Laister ekarri zitun Beratik, eta goizeko bostak aldean eraso zien karabineroai. Sei orduz an ari izan ziran su ta su, angoak eta emengoak. Berrogei ziran etxe barrenean, ezereen kezkarik gabe, Irundik aiei laguntzera etorri-bearrak baitziran. Baño Santa Kruzen mutil-mordoska batek galarazi ezipalie, etorriko ziran noski. Beren buruak galdurik ikusi zitutenean, bandera zuria atera zuten pake-zantzuan. Aurreratzen dira Santa Kruzen mutil batzuk, eta, alajaña, tiroka asten dituzu. bai omen zan mutill aietan Santa kruzen antzantzekoa, ber-bera zirudina, Txistulari. Nonbait, bera zalakoan, egiten dute su batzuk, besteak etxe-atzetik Prantzira igesegiten dutela. Ordun Santa Kruzek kañoi-dunbada bat botatzen du. Lau ez beste guziak an gelditu ziran zerraldo. Lau aiek iges egin, bide-bazterreko kunetetan sartu ta edo. Bi ibaiean ito ziran, Prantzira pasa-naiean. «Nere mutilla balaz ziztatuta ikustean, ordaña artu zuten», dio Santa Kruzek. Etxe-barrenean bizi-rik gelditu ziranak (eztakigu zenbat) atera ta urruti gabe an illarazi nitun, prestatzeko beta emanda.

Oraindik bizi da Benabides igesegin zuten lau aietakoa. Ark dionez karlistak etxea inguratu egin zuten. baño ori ez ditekena da. Ez Santa Kruzek, ez Otxoak, ez Kaperotxipik ez dute olakorik esaten, eta gañera era txarrean zegoan etxea: aldapa aundia igo-bearra, ta arkaitzetan lauoin-ka ta apoka ibilli-bearra, Jaime Orbek dionez, Benabidesek ez omen zun aipatzen bandera zuriarenik, baño norbaitek galdetuta ikus zer asmatu dun: mikelete-etxean batzuk goiko bizitzean eta besteak beikoan ari zirala, ta bear ba da, goikoak bandera zuria atera zutela, baño beikoak etzirala oartu ta berriz tiroka asi zirala. Ez du onek egiaren itxura aundirik. Zertako atertu ziran tiroak? Eta goiko bizitzetik beikora etortzerik ez al zegoan elkarren berri izateko ta bandera zuria ateratzeko? Karabineroak etxe-

barrenean elkarren berri ezpazuten, Santa Kruzek etzezaken jakin elkar artu zutenik etzutenik. Baietz irudituko zitzaiola esan bearrik eztago. Jaime Orbek ikus zer dion: geroago ta garbiago ageri da Santa Kruzen egite au, arentzat baño karabineroantzat lotsagarrigo dala.

Piralak eta gañerakoak asmatutako gauzetaz ari gintezke luzaro, baño dana dan bezela esatea askiko da.



XXVIIIgarren txatala  
**BEASAINGO ESTAZIOA KIXKALTZEA.**  
**SANTA KRUZ TA ERRITARRAK**

Liberalak eta karlista alperrak edo ojalateroak, Santa Kruzen izena nola belztu egiñalak egiñ arren, etzuten nai zuten irixten. Arek eginda-koz sarraskiak, eta gogorkeriak egi izan balira, eztakit noski alako txalorik eta auparik egingo ote zioten Gipuzkoako errietan. Ataunen, Lazkaun, Beasainen, erri ontako estazioari su ematea zijoala, erri osoak atera zitzaizkion txaloka ta aupaka. Ikus zer dion Kruz Otxoak: «Gu Ataunen geundela jakitea, naikoa izan zuten liberalak, andik Villafrankara usu ta arin aldegitiko. Ataundik ateratzean, bildu zitun Santa Kruzek egundaño-ko esku-zartak eta aupak eta oiua. Lazkaura joan zan petrolio billa, ta ango erritarrez inguratutik, ba zijoan Beasain aldera, ta bidean jende-taldea aundituz ari zan ibaia bezela, guziak eztanda egiñ arte txalokatzen zutela. Illunabarrean sartu zan Beasainen, eta an ere era berean artu zun erriak, esan al diteken baño beroago. Jesus batean estazioa kixkaldu an zeuden tirogaiekin, eta len baño jende-pillo aundiagoaren erdian. Lazkaun gelditu gabe, atzera Ataunen sartu giñan gaberako. Jende aren poza ta ixtilua etzan nolanaikoa». Apaiza Portu-etxek, beste izenez Lasarte, Santa Kruzengandik aldegin da asmatu zitun aren kontra asmatzekoak eta ez asmatu-bearrak. Dorrontsorok eta Lizarragak ere zabaldu zituten ojalatero eziñ-eraman aiek esaten zizkien izketa zuriak eta gezur beltzak; baño ala ere Santa Kruzek su ta gar biurtzen zitun biotzak Euskalerriko auziaren alde.

Bitartean Valde-Espinak bere emazteari esaten zion Naparroako Urdazubitik kartaz: «Santa Kruzekikoa geroago ta okerrago dijoa: esaiezu aren alde daudenai, burua galdu dutela...». Adierazi iezu oiei guziei, ortik ez tirala gauzak emendik bezain argi ageri. Beaz, erritarren artean ez ezik Markes-andrearen inguruan zebiltzan aietatik ere, ba zitun Santa Kruzen aldekoak. Valde-Espinak bere aldetik begiratzen zun, bai Lizarragak ere, bai Dorrontsorok ere, bai apaizak ere. Nor zegoan zuzen?

XXIXgarren txatala  
**SANTA KRUZ ETA LIZARRAGA**  
**ALDE BANATARA**

Lenago ukitu degu Santa Kruzen eta Lizarragaren elkarrengandik alde-banatzeta. Nork ote zeukan kulpaa? Joan da billa! Elkartzeta, biek nai ta biek ez nai. Bakoitzak bere aukerak eskatzen elkar artzeko, ta ortan zegoan giltza. Santa Kruzek bere gisa ta bere erara egin nai gerra, Gipuzkoan bear omen zan bezela; Lizarragak berriz, apaiza Elizan sartu zedila, ta gerrari utzi zezaiola. Len gutxi izan karlistak, eta elkarrekin asarre. Gerra irabazteko, zer alderdia!

Dun kulparik eztiogu kenduko Santa Kruzi, baño ez Lizarragari ere. Gerran sartzea oker egin zula jakiña da; baño ez noski iñork egundaño egin ez dun eta egingo ez dun okerra. Europa-gerran eunka ta millaka ba ziran apaizak, ez erlijioa gordetzeagatik Santa Kruzek bezela, baizik errik erriari dion gorroto utsaren eraginez: «aleman guziak txarotu bear ditengu», entzun nion praile prantzeta bati. Lotsagarrikoa noski. Ta ala ere ba ziran praileak, Ameriketatik misioetatik etorri ta, beren jaioterriarekin Santa Kruz baño itxuagotu ziranak. An utzi zituten ainbeste gizagaxo siñesgabe, berriz basa-jende biurtzeko zorian. Santa Kruzek bere buruari siñistarazi zion erlijio-gerra zala ua, ta ala zan aldez alde, liberalak berak aitortzen zuten bezela. Ala ere debekaturik zedukan gerrara joatea, kapi-lautako ezpada. Ortan lilluratu zan gizagajoa.

Ta nork zan Lizarraga, Eliz-legeak ezin zezakena Santa Kruzi egiñarazteko? Ajola izango zitzaion ari Lizarragarengatik! Arek erlijioa ta Euskalerrria zeduzkan gogoan eta etzitzaion beste legerik burutara ta begien aurrera etortzen. Lizarragak utzi egin bear zion bada, ta ez ari etiketan. Baño zergatik etzun ikusi nai apaiza? Itzal pixkaren bat egiten ziolako noski; bera baño azkarragoa zalako. Santa Kruzek ere ba dirudi egiz eta benaz nederatu naican zegoala Lizarragari; baño ua ere bere tankeran egon: ala gerrarik etzitekela egin, eta Lizarraga ta Dorrontsorok, etsaiarekin adiskideketan zebiltzala, ta abar. Valde-Espinak egiñalak egin zizkion Santa Kruzi, arren, Lizarragaren eskura zedila; baño alperrik: «anka au mozten utziko nuke, omen zion, Santa Kruzek eta Lizarragak elkar artzeagatik». Bere emazteari egindako karta batzutan ageri danez, arren, eskatzen dio Santa Kruzi, elkar artuz etsaia urratuko dutela; baño apaizak ez-aditu egiten; bai baitzekin Lizarragarekin etzeukala konpontzerik.



Adiskideak ere esaten zioten, Lizarragak ez omen zedukala konpondunairik, Eliz-lanetara aldegiten ezpazun beintzat. Ikus zer dion Valde-Espina markes jaunak Urdazubitik: «emen daukagu jendea, erdiak armarik gabe, ta armakin diranak ere eztute tiro-gairik. Santa Kruzen laguntzarekin autsi genezake beltza, baño Santa Kruzek ez erantzun egin du ofizioari». Urrengo goizean au zion: «armarik ez degulako gaude emen geldi, ta ia Jainkoak Santa Kruzen biotza ukitzen ote dun: oraintxe bialdu diot mandataria». Atsalde artan bertan: «eguna galdu besterik eztegu egin, Santa Kruzek ezpaitigu lagundu, ta gañera arro-antzean etorri da, Erregearengatik eta neregatik ajolik ez diola. Zorabioturik gauzka. Gaur menderatu genezaken Sunbilla». Gera Santa Kruzek ez omen zun ezer balio. Balio izan ezpalu etzuten orrela itzegingo maite etzutenak ere. Ta Lizarragak berak, agintarizkoa utzi nai ta esan zion Erregeari: «Santa Kruz edo Lizarraga: bietan bab».

Dana dala, negargarri da ordun gertatu zana. Batzuek ezer egiten ez, eta egiten zutenai utzi nai ez, eta besteak beren buruz ari nai. Santa Kruz etzegon bakarrik. Orduan Tolosako apaiz nagusi zan Luziano Mendizabalek eta gero izango zan Orkaiztegi ere gañak ematen zizkioten Santa Kruzi. Oien bidez Santa Kruz eskuratuko ete zun ibilli zan Valde-Espina, baño okerrago oraindik.

### XXXgarren txatala

## SANTA KRUZ TA VALDE-ESPINA. ERREGA IXILLIK

Valde-Espina gizagajoak egiñ-alak egin nai zitun Santa Kruz ta Lizarraga adiskitzeko, baño Santa Kruzen aldetik zegoala kulpa uste. Esanik utzi degu, Lizarragak ere etzula konpontzerik nai Santa Kruzekin: nai bai ta nai ez biek ere. Sakristira sartu balitz betiko, barkatuko zion bai pozik Lizarragak; baño ori etzan izango konpontzea; ori, korapilloa askatu-beurrean, moztea izango zan. Ez al zegoan Santa Kruz bezelako baten bearririk karlistetan? Lizarragak eta Dorrontsorok ere, baztarrak erabilli zituten, Errege Karlosek Santa Kruz galdu zezan, eta erbestera bialdu zezan; baño Erregea ixilik zegoan. «Erregea ixilik badago, ontzat artzen du Santa Kruzek egiña, zion Valde-Espinak, eta ori ontzat artzen badu, ez det ibilli nai olako jende lapur gaiztoaren artean».

Santa Kruzekin itzegin-naia zedukan Valde-Espinak, eta bai itzegin eta alkar ondo artu ere; baño andik iru egunera, su gaiztok artu zun Valde-Espina Santa Kruzen kontra. Joan zitzaion berriz, eta aditu omen zitun «ñorengadik aditu etzitzenak, eta atzetik esaten ditutenak baño beltzagoak ere. Berak, Santa Kruzek, ez omen zun ezer nere kontra, gizon piña ta bizkorra nintzala ta; baño, berriketa gutxi; betiko mendera-gabe arrek gogoan jotzen nindula esan nion, eta karlisten alderdia berak ondatu zula».

Orrela zebiltzen batera ta bestera; ezer aundirik atera gabe. Estradak gaztiatu zien Valde-Espinari ta, iraupen apur bat izateko, elkarrenganako gaizki-esaka ta ixtillu aiek uzteko, etsaien pozgarri baitziran; Erregeak erabat garbituko zula auzi ori. Erregeak izan ere egin zion karta Santa Kruzi Garagarrillaren 27garrenean. —Altzaten jaso zula ba dakigu—, baño zer esaten zionik eztakigu. Nonbait, adiskidetu zedilla aiekin, esango zion. Kartaren zantzurik eztegu sumatu.

Azkenik, Santa Kruz arrapatu zuten Beran bere mutillekin. Lizarraga, mugaz arontzako erri batean omen zegoan gaixo. Iru gauz eskatu zizkion Valde-Espinak Santa Kruzi: zeraman bandera beltza baztarreratzeke; bere burua ta jendea Erregearen eskuetan jartzeko, agiri edo garbitasun baten bidez; eta Lizarragaren esanera etortzeko, beste agiri batez. Lenengo bi gauzak etzioten ainbeste miñ emango Santa Kruzi, baño bai irugarrenak. Ez al zan len ere bein baño geigotan Lizarragaren mende-



kotzat eskeñi? Valde-Espinak dio, au ere agindu zula, baño itza jan zula. Neri iduri zait, iru gauz oiek erabat aginduko zitula, baño bere buruan berexi egingo zula irugarren aukera ori, Lizarragaren mendean jartzeko ori. Gañera, garai artan, etzan Santa Kruz bere buruaren jabe, ta ordun emandako itzak etzun ainbestetaraño beartzen, bere buruaren jabe ta iñoren estutzerik gabe eman lezaken itzak bezela. Zer egin bear zun gizaga-joak beste alderdirik ezpazeduken. Gero berriz, Santa Kruz Beran esiturik zedukatela entzun orduko, Lizarraga, gaitza botata an azaldu omen zan. Estuasun artan ez da arrigarri, Markesari paperak itzuli gabe Prantzira aldegitara. Lizarragak arrapatu balu, il zezaken, aren burua eskaturik baitzeduken. Inka ontan zer itz eta zer itz-ondo?

Ez omen zun uste Valde-Espinak, Santa Kruzek itza jango zunik. Eztakit bada: garbi aski erakutsi zion apaizak, etzedukala itza betetzeko gogo aundi aundirik. Valde-Espinari iduri zitzaion txoria kaiolan zedukala, ta etziola oraingoan igesegingo: «baño kaiola-atea zabalik zedukala txoriarekin jolasean ibilli zan, eta txoriak igesegin oraingoan ere. Igande gabean egindako aginduak beteko zitula esan zidan astelenean eta bere mendezkoa firmatuko zula, baño Donibane Lohitzungo adiskide batzuen begira zegola...». «Asteartean bildur nintzan itza beteko ote zun. Isidro Urruela etorri zitzaion, eta arekin ere ez gendun ezer atera. Asteazkenean etorri zan Tolosako Bikarioa, ta okerrago; arro-antzean eta nagusi-antzean etorri zitzaidan Santa Kruzen aldetik. Ordun iru orduko tartea eman nion Santa Kruzi, ta errenditu zan, firmatuko zula. Gañera, atsalde artan bertan bere emengo mutil-taldeak neri utzi zizkidan, eta gabez zegoan etxean lo egiten utzi nion... eta igesi joan da». Ezinbesteko itza ta gogo txarrez emana. Txoriak igesegiten nai al zun Valde-Espinak? Beti arontza ta onontza, ta beti atzeraka Santa Kruz, igande gabetik asteazkene-neraño, ta, ez al zion igarritzen aldegin-naia zedukanik? Edo etzun uste igesegin zezakenik, edo berak utzi zion, erdizka bederik etsita.

**XXXIgarren txatala**  
**ERREGEAREN AGINDUA.**  
**SANTA KRUZK ALDEGITEN DU.**  
**MUTILLEI, AGUR!**

Erregeak ala agindu zion azkenean, eta bere mutillek utzi-bearra izan zun. Apaizaren itzak aterako ditugu. «Lizarraga Prantziko muga-erri batean zegoan gaixo-idurian, eta bere mutil guzien agintarizkoa Valde-Espinari eman zion, eta ni atxitu nenzala agindu. Iru edo lau aldiz itzegin gendun eta noizpait ere burua makurtu nun. Lizarragaren mutillak eta nereak bateratu ziran, aiek armadun eta nereak gabe. Arenak atera ziran sapaillotara ta leioetara, tiro-ikasten ari bear balute bezela. Ni bakarrik nengoan, eta ni ere atera nintzan sapaillora edo balkoera, ta esan nien. Emen negok; zer bear dezue? aul ezerezak! Ordun tiroka asi nai zuten nereak. Debekaturik daukazue, esan nien; galdu gera. Erregeak aldegitoko agintzen dit. Ordun, Lizarragaren mutil-nagusi batzuk ni ikustera etorri ziran eta esan zidaten: Don Manuel, gu zein prestuak geran ikusi dezan, emen uzten degu bere goardiarekin. Ene-dukun goardi txarra, etsaiez oso inguraturik nengoan da! Ojalatero aien asmoa agerian zegoan.

Biaramon goizean etorri zan Berara Lizarraga, gaixo omen zegoana, baño orain bizkor zegoan, ni eskuetan arrapatuko nindulakoan. Bere lau mutilli, ni atxitu ta arengana eramateko agindu ziten. Eztago emen orde, erantzun zioten. Atzo igesegin zun orroko ate ortati. —Ez diteke! Orrenbeste goardi inguruan zeduzkala? Asmatzekoa ka Lizarragaren asarrea ta amorrua, txoriak igesegin ziolako! Jainkoak ez nai ni pusilatua izatea. Beste munduko eginkizunetarako ta misioetarako nai nindun. Aietatik aldegitetik etzidan aginduko betiko Erregeak. Alaxe bada mutillei azken-agurra egin zien: «Galdu gaituk mutikoak, nik etzezakeat ezer egin. Adierazi nizuen, lenengo karlistaldian gertatu zana gertatuko zala oraingoan ere. Lengo saldukeriak. Alper alperrik ariko gaituk. Zuek egizue nai dezuena. Ameriketara joan nai ba dezue, bidekoa pagatuko dizuet». Mutillak erantzun zioten, baionetak lurrean sartzen zituztela: «ez, nagusi, guk etzaitugu utziko». Baño apaiza, irugarren aldiz, ustez azkenekoz, Prantzi-mugan arontza izkutatu zan.

Lizarragak arnasa artu zezaken arrezkero. santa Kruzek etzion aurrera galaraziko, ta gerra irabaziko al zun.





## XXXIIgarren txatala ATZERA GIPUZKOARA

Bost illabete terdi egin zitun Prantzian, Euskalerrian zer gertatzen oten zan begira. Etzegoan lasai gizagajoa. Erri-jendea asperturik omen zegoan ainbeste lapurreta, etxe-erretze ta eriotz ikusita. Amorru bizia zeriola, ezkeneko alegiña egitea erabakitzen du. Bera Gipuzkoan zegoan bitartean, kuzkur ibilli ziran liberalak eta erritar gaiztoak. «Don Manuel emen balego, elukete olakorik egingo», zioten giputzak. Lizarraga Asteasun omen zegoan alperkeri goxoan, eta mutillek nai zuten bezela, soldadukeriak egiten. Gauz oek Santa Kruzi onik egiten ezpazioten, beste berri latz batek oso bere onetatik atera zun: Lizarragak Esteban Indart eta Patxiko Arbelaiz pusilatu zitun, Santa Kruzekin mutil-nagusi ibilli ziranak. «Pensamiento Español»etik otsegin zien Santa Kruzek karlistai, eman zezatela gauz orren garbitasuna; berak burua aterako zula aien alde. Ixildu bai danak. Karlista aiek liberalik pusilatu zutenik ezta kigu, dio Murgiondok; aien jokabidea, iñor ez pusilatzea omen zan da; baño bereneta-koak bai, bizkor aiek.

Santa Kruz etorri-aurreko agunetan iskritu bat azaldu zan «Ernai gipuzkoarrak» ziona, Dorrontsororen eta Lizarragaren egite batzuk itxusitzen zituna. Dorrontsoro, bildurturik, Oñatin indartu zan eta Lizarragari adierazi zion, Tolosari erasotzeko, jendearen esamensak ixiltzarren. Eta itzetik ortzera ara non azaltzen dan Santa Kruz Beobin, Abenduaren seigarrenetik zazpigarrenera gaubean. Ba zun azala! Emen Lizarragak eta liberalak, bakoitzak bere aldetik aren burua eskaturik zedukaten; baztar guziak etsaiez ta zelatariz baterik; Prantzian ere agindua zuten, aren usmorik balinba zuten, atxitzeko ta ekartzeko. Ainbeste jendarmeren, karabiñeroen eta etsairen artetik, itzal utsa balitz bezela, Berrobiko zokora jo du bere buruarekin. Ikaratia omen zan Santa Kruz. Au ere entzuteko geunden. Artzen du preso Iturbe Villabonan, eta bialtzen ditu lau mutil-mordoska Asteasura Lizarragaren kontra. Laister bildu zitun Santa Kruzek lagunak. Aien atzetik bera joaterako, Lizarragak armak kendu zizkien. Gañera, oartu zan Santa Kruz, Moriones liberala bere mutil-talde aundiarekin Lizarragaren kontra zijoala, ta pakean utzi zion gizagajoari, karlista-odolik ixuri etzedin. Etzegoan ezer egiterik, eta atzera Prantzibidea artu zun: oraingoan erabat noski.

Berriz ere muga pasa-bearra ta oinbeste mugazai ta jendarmeren artetik. Gabez sartu zan Irunen, ez-ezagun, adiskide asko ba zitun ere. Gau itxian kaleetan zebillela, sereno bat zetorkiola oarturik, bera aurreratu zitzaion iduritu kentzeagatik. Apaiza jaun Klaudio Etxeberria non bizi zan galdegin zun, aita txarki zedukala ta, Elizakoak emateko. Serenoak etxera erakutsi zion, eta bere arrek atea jo ere. Baño serenoak alde batera egin zuneko, Santa Kruzek bestera. Ari zun otzarekin, ikullu batean sartu zan, eta eguna zabaldu baño len, Prantzira bidea artu zun. Muga pasatzen zeuden orain ere lanak. Baño orain ere zerbait asmatuko zun eta bearra ere bai, lepoa moztuko ezpazioten. Enderlatzako karabineroen lagunak arrapatzen ba dute! Mugara urbildu zanean, eserita, pardela askatuta gosaltzen asi zan. Karabineroak asi zitzaizkion axekan, eta Santa Kruz itzerdika, baserritarra balitz bezela. Puska jan zunean, berriz pardela bilduta bidez bide asi zan estuasunik gabe. Iñork etzion ezeren eragozpenik eman. Nor zan jakin izan balute!

Donibane Lohitzunen bizi izan zan alditxo batez, Isidro Urruelaren etxean; luzaroago berriz Nangleten, Andoaingo Larretarrak zuten etxe batean. Bere artan zeuden Mendizabal eta Orkaiztegi apaizak karlisten-gandik igesi, Santa Kruzarrak ziralako.



XXXIIIgarren txatala  
**LIZARRAGA ARAGOARA:  
 SANTA KRUZ PRANTZIAN**

Lizarraga asi zan Dorrontsororengandik okertzen, len adiskide ba ziran ere. Diputazioaren inprenta zala edo, erabat asarretu ziran: Lizarragak Bergarara eraman bear zala, ta Dorrontsorok, zegoan tokian ondo zegoala. Diputazioa ere aspertu bide zan Lizarragaz, eta Erregeari ala adierazi zion. Erregeak Aragoara aldatu zun Lizarraga, Gipuzkoako soldaduen agintari nagusi Ceballos egiten zula. Laister asi zan Lizarragaren kalbarioa. «Mingarri zait, esaten dio Erregeari, ni bezela gerran zartutako gizonari geigo kasorik ez egitea». Orain etzedukan bada Santa Kruzik ondoan. Andik illabetera: «berriz ere berorregana jo bearra det, nere izena itxusiturik gelditzen da ta. Lazzarini dalako arrotz batek Judas saltzalle nintzala esan zidan soldaduen eta morroien aurrean. Ekin nion nik ere, baño atzeko alde eman da an utzi nindun... Erregearen anaiak siñistu alare, nik utsegin niola: au naigabea!» Andik luzaro gabe Lizarragak bere eginbidea utzi-bearra izan zun.

Bitartean, Santa Kruzen auzia gerogo ta okerrago zijoa. Jendar-meak aren atzetik zebiltzen, eta Jorrraillaren 22garren goizean atxitu zuten eta Baionara eraman, andik Prantzian barrenago sarrerazteko. Goiz batean, ordu biek aldera, an azaldu ziran Santa Kruz bizi zan tokian, Donibane Lohitzungo Madame Del Portereren etxean, soldadu bakar batzuk.

Igeslekua ba zun Santa Kruzek, eta izkutatu ziteken, baño etzun nai izan. «Eztegu geigo itxillurik bear», esan zun. «Jainkoaren eskuetan nago: ni izkututzen ba naiz, or dauden bi mutil zauritu oiek atxituko diute ta galdurik daude, oiek itzularazi baitzuten gerrara, andik aldegin zun bat. Nik nere burua ematen ba det, oiek ondo aterako dira, ta ala obe da». Soldaduak etxera sartzean, bera agertu ta eskuetara zitzaien. Eramaten dute Baionara, ta an iru edo lau egun eginda Parisko Prefecturera eraman zuten. Baionara trenean zeramatela, tunel batean sartzekoan, ondoan zeramatenak estutu egiten zuten, igesevingo ote zien bildurrez. Apaizak berak dio: «Baionako kartzelan ere, goien goienetako gela batean sartu ninduten. Andik ere igesevingo nulakoan, paretak ondo begiratu besterik etzuten egiten, nondik atera nindeken...». «Parisera ninderamatela Burdeos, Parisko gobernuaren ordeko bat atera zitzaidan eta esan zidan:

zaude lasai, Prantzian estimatzen zaitue ta. Parisen errepublika-zaleak beren arterako nai ta Gobernuaren jauregira eraman ninduten. An ari ziranak, ni ikustean, zuti jarri ziran, eta soldadu-agurra egin zidaten; erakutsirik bide zeuden non nintzan. Guzien erditik, iñori begiratu ere gabe Buru zagia zegoan tokira joan nintzan: eseriazi nindun, eta izketan ari izan giñan. Andik Lilara bidea artu nun».

Iru illabete osoetan eztegu apaizaren berririk, baño Uztaillan asi ziran berriz ere aren etsaien espak eta arazoak: mugara urbildu zala berriz ere; ikusi zutela au ta ori egin zula. Etzegoan ezeren bildurrik. Santa Kruzek erabaki zun noizpait ere, Aramaioko ibaiean egin izan zun ziña: misioetarako asmoan zan.





XXXIV garren txatala  
**SANTA KRUZ LILAN,**  
**LONDRESEN**

Paristik Lilara eraman zuten ango itzal-etxe edo kartzelara. An luza-ro gabe bere esku utzi zuten eta ango jende katoliko onan artean adiskidezkoak egin zitun. Apaiza Santa Kruzen entzutea ba zuten noski, ta maite zuten Prantzian aditze utsez. Saint Maur deritzaion jesuiten etxean egin zitun San Inñazoren ejertzizioak, eta berak dionez, beste gizonik biurtu zan. Mr Therrik dionez, Trapan ere egin zitun ejerzitzioak. Andik misioetarako asmoa artu zun. Bitarte artan etorri zitzaion Erromatik, gerran sartzen diran apaizai bialtzen zaien barkapena. «Adiskide ta diruak uzteak, ekarri zizkidan adiskide ta diru berriak», dio apaizak. «Baionatik Lilara, Lilatik Bruxellesera, Bruxellesatik Londresera, Londresetik Jamaikara, bestek emanarekin, txanponik ere gastatu gabe joan nintzan».

Gogora dezagun Londresen gertatua. Jaime Orbe, Valde-Espinaren billobak esango digu: «Egun batez, Don Karlos Londresen zegoala, Meza entzuten ari zan bere agintari-orde Jose Mari Orberekin. Meza ematen ari zana entzuleengana itzuli zanean, ukondoaz jo zun Don Karlosek Orbe, ta esan zion: "ez aiz oartu? Apaiz meza-emalle ori Santa Kruz dek". Meza bukatutakoan Don karlosek bere laguntzalea sakristira bialdu zun, izan ere ala ote zan, eta ala ba zan, ekarriazteko, elkarrekin gosaldutakoan, ondoko gelara sarrerazi zun Don Karlosek Santa Kruz, eta an igaro zituten ordu batzuk izketan. Zer itzegin zutenik ez du inork ere jakin, ez batak eta ez bestek ezpaitzun aipatu ere ango berririk. Bear ba da, Santa Kruzek, bere egiteen garbitasuna emango edo zion. Badakigu ala ere, andik aurrera Don karlosek Santa Kruzekiko iduritze obea izan zula». Apaizak berak ikus zer dion: «Londresen bizi zan etxera eraman nindunean esan nion: ni bezain menpeko zintzorik ez du izan berorrek. Don Karlosek erantzun zidan: len jakin izan banu. — Onozkero eztago bada oker ori zuzentzerik, esan nion».

Ari danean, beste bitan ere elkar ikusi zuten Santa Kruzek eta Don Karlos Londresen. Praille karmelita etxean bizi zan ez ote zan alditxo batez entzun izan nun, baño oraintxe bialdu didate berri au. Santa Kruzek Don Karlos Londresen karmeliten bizitetxean ikusi zun aurrenekoz. Aita Liborio, Markinarra, Txarakako baserrikoa zan Londresen karmeli-

ten nagusi. Emen dijoana ari entzuna da, karmelita askok dakiten bezela. Aita Liborio ori Kalahorran il zan. Entzun bada nola kontaktu izan zun: «Santa Kruz gutartean bizi zan alditxo artan, karmelita balitz bezela. Bein batez, Don Karlosekin ari nintzala, Santa Kruzekin adiskidetu-naiean, onela esan nion: badakit, nik aintzat daukadan batekin asarre dagoala berori. —Bai, erantzun zidan; iru Kruz gorrotatzen ditut, eta batez ere apaiza, ta emen ba neduke, ezpata sartuko nioke alderen alde. —Eta nik noizpait aurrera ekarriko banio, ta kristau-legez barkatzeko eskatuko banio, ez al lioke barkatuko? —Gizona... kristau naizenez barkatuko nioke. —Tira bada, ondo artuko dula agintzen ba dit, oraintxe bertan azalduko da emen Santa Kruz. —Itza ematen diot bada, ez diotala ezer egingo. —Joan nintzan Santa Kruzengana, ta ola ta ola esan nion, eta eramanerazi nun Erregearen aurrera. Apaiza ikustean Don Karlos naastu zan pranko, baño azkenik eskua lauzatu zion. Santa Kruzek, bere erabakitasuna utzi gabe esan zion: ba dakit berorrek gorroto didala; baño berori bizi ba da, neri zor dit. Berorregana zijoazen korreoak nik miatzen nitun: zazpi pusilatu izan nitun, berori iltzeko argibide bereziak bein baño geiagotan arrapatu nizkielako. Au aditzean, biotzak zirrara egin zion Don Karlosi. Onezkoak egin zituten, eta elkarrekin gosaldutakoan. Pakea osoagoa izan zedin jauki nien bieci, urrengo igandean Santa Kruzek meza eman zezala, ta Don karlosek bere eskutik jauna artu zezala. Pozik etsi zun Don Karlosek, eta ala gertatu zan.

Santa Kruz Ameriketara baño len Venecian egon zan iru egunez Don Karlosen etxean. Beaz, ordu ezkeren elkarrekin adiskide gelditu ziran».

Alde batera aundi samarra iduritzen zait berri au, baño bestera ez dezaket nolanai gezurtzat iduki. Karmelitaren esana. Portuges zeritzaion baten etxean egon zala jesuitengana bitartean, dioten batzuk, eta karmelitetan etzala bizi izan. Dana dala, egiari zerbait erauntsi ba zaio ere Aita Liboriorengandik gureganaño, aundiegia litzake guzia gezurra izatea.



### XXXVgarren txatala MISIOETAN: JAMAIKAN

Gerraz aspertuta, mundu gaizto onek gogoan jota joan ote san Santa Kruz siñisgabeen misioetara? Ez: lenagotik ere asmoetan zan. Etxean izaten zuten Errebista bat, misio-gauzetaz barri ematen zuna. Ua irakurriz sortu zitzaion biotzean ara joateko sua. Gerran asi zanean asmoa artu zun, Jainkoaren mesede ori galaraziko ziokenik ezer ez egitea. Artarako, bere egiteko guziak aitortu lezazken begirari bat aukeratu zun. Inñora ere etzan joaten aren berri gabe ta aren lagungoa gabe. Bearrik! Gañera, gerrara joan zanetik, egunero errezatu oi zitun iru Agur Mari, misioetarako asmo orrekin berarekin. Ain gaiztoa izan balitz, etzan gerratik misioetara joango. Gerran sartzen diran apaizak, biziera lasari ederretsitzen diote, baño Santa Kruzek biziera latzari ta gogorrari eldu nai izan zion.

Asmo oiek zitula ta zertako sartu zan bada gerran? —Euskalerriko fedea galtzerik nai etzualako. Egiñalak egin zitun, eta etzun belakoan etsi gizagajoak; baño beste alderdirik etzegoala ikusita, noizpait ere utzi zion gerrari, ta joan zan beste Errege baten serbitzura. Errege arek ez dio inñori «aldegitekorik agintzen».

Jotzen du bada Jamaikara, ta an ari izan zan lanean amabost urtez jesuita ingelesakin. Bitarte artan jesuita sartzeko mesedea, aspertu gabe eskatzen zion Jainkoari, ta geroago ta asmo aundiagoz.

Jamaikan 1875garrengo Azaroan sartu zan Kingstonen, eta an urte betetsu eginda, Belizera bialdu zun misiolarien Nagusi-buruak. Ango egurastaro latzaren bidez, gaizberatu, erkitu, bere buruari aski kontu artu gabe zapart egin, oso auldu, ta atzera Jamaikara jo zun. Jamaikako adiskideak atsekabe artu ba zuten Santa Kruzek andik aldegitean, atsegin zuten noski orain, zetorrela jakitean. «Nere adiskideak —dio berak— bidera atera zitzaizkidan, eta aurreneko biotz-zarrazta pozezkoa izan ba zun ere, nere auleri ta arnasgabea ikusita, estutu egin ziran, bear baño geigo. Jesuiten Etxean kontu artu zidaten egundañoko begi onez ta maitez». Indarberritu zanean, ekin zion berriz ere lanari. Sei Elizatxoren zai ipiñi zuten. Illero ikusi bat egiten zien. Elkarrengadik oker aski egonarren. Berak ere beste Eliz berri batzuk egin zitun. Txabol estu bat zun etxetako, ta gabez eltxoakin ezin-burutu aundia. Gero bialdu zuten Jamaikako Basaburura edo tokirik menditsuenera ta an ere asi zan bizkor lanean. Baño bere burua bakar-antzean ikusten an da, Kolonbiara aldatzeko baimena eskatu ta iritxi ere egin zun.

### XXXIVgarren txatala KOLONBIAN: ERIOTZA

Kolonbiara 1891garren urte-azkenean aldatu zan, eta Sybundoiko ibarrean iru parroki eman zizkioten zaitzeko. andik lau illabetera, Pastora eramane zuten Jesuitak, erakusten arierazteko. Ogeita lau urtez ari izan zan erakusketan: ogeita iruz ingeles erakusten, eta amar urtez aldi berean prantzez erakusten, beste jakin-gai batzukin. Bitarte ortan ere joan-etorri batzuk egiten zitun berak egindako erri batera: San Inñazioko errira. Zazpi urte bear izan zitun angio Eliza egiteko, ta azkeneko urteetan, erabat angio lanetara lotu zan. Inditar aiei dotriña ta kantak erakusten neke ederrik artu zun gizagajoak. Etxea ere biziro zarpilla ta kaxkarra; oea ere berak arbaz ta zaborrez egiña, gaberako ez estalki ez berogarri zula. 1922garrengo san Inazio egunean jesuita egin zan, eta andik lau urtera il, 1926garrengo Agoztuaren 10garrenean.

Eriotzaren berri laburra emango dizut. Urtero bezela bere San Inñazioko errira joan zan, Elizkizun eder bat atera bear zula ta. San Inñazioko egunean bertan ezinda andik bederatzigarrenera joan zan beste jesuita euskaldun batekin Antonio Egaña bera, Bizkaiako Maruriko semea. Egun artan gaizki arkitu zun bere burua, ta Meza ere, besteren besoetan atsedena artuta esan bear izan zun. Gero, Meza-nagusira nolabait arrastatu zan, baño etxera-bearra izan zun. Pastora joateko gogoa erakutsi zien, eta Agoztuaren 10garrenean ba zeramaten berrogeita amar gizon inditarrek; baño San Inñaziotik legua bat bidera edo, iltzera zijoala ikusita, bere artan tenk egin zuten. San Inñaziora itzuli zezatela esanda, mendian il zitzaien. Gizon aiek bereala Pastoko jesuiten nagusiari gaztiatu zioten: «Aita Loidi —Santa Kruz— il da. Gorputza San Inñaziora deramagu atzera. Arren eta arren eskatzen diogu berorri aren semeok guziok, gorputza utzi dizagula angio Elizan barnen, obiratzeko». Jesuitak Obispoari eskatu zioten baimena, ta bai eman ere. Il zanetik obira sartu-bitartean, Elizatxoa jendez beterik egon zan egun guziz. Inditar gaxo aiek, errosario ta kanta pranko esan zuten beren Aitaren alde; urrengo egunean bai Jauna artu ere makiña-batek. Illaren 28garrenean elizkizun aundigoak egin zizkioten, eta asmoetan daukate oroitzarri bat altxatzea aren izenean. An dago illaren gorputza, ondo ilda oraingoan.



### XXXVIIgarren txatala KOLONBIAKO GERRAN

Kolonbiako azkeneko biurrialdi edo matxinadan ere, jesuita izan baño lenago, gerran sartu zan gure Santa Kruz, Obispo jaunak aginduta. Ikusi zun batek esango digu zerbait, gutxi bederen: «Egun gategz gogor egin zion Santa Kruzek Velasco generalari, Guerrero katolikoa estu zala ta lagundu egin bear zitzaiola. Velaskok ezetz, galbidean sartzea besterik etzala ori; baietz, eta gerrari-talde osoarekin lagundu bear zitzaiola. Ari ziran etiketan, eta Santa Kruzek bere uste-bidea azaldu zunean, esaten dio Velaskok: "alper alperrik ari da Aita: emen zabaldietan degu gerra ta ez mendi-tartean, Gipuzkoan bezela". Asi zan Santa Kruz arontza ta onontza, gerra-batzarrera zuten gelan, eta zion: "zenbeit generalek, nere sota-na artu bear lukete, ta nik aien ezpata. Zenbeit soldadu etxe-zuloan egon bear lukete. Ots, zenbeit soldaduk ez dakite soldaduzkoa zer dan". Asarretu ziran gogotik biek, eta elkarri eskañika ere asi ziran. Alako batean, general aietako batek esaten dio Santa Kruzi: "Aita, nerau noa nere gisa". Apaiza lasatu zan orduntxe, ta bai ondorenak arek esan bezela gertatu ere».

Beste bein, Tuguerresko agintari nagusi zan Valderramak berri izan zun, bazetorrela ta bertan zala Jose F. Mata, biurrien buruzagia, sekulako saillarekin. Etzegoan ezere laguntzarik. Eun gizon zitun guziak ere Alava koronelak, eta aiek ere zer-ikusi atera ziran, eta bear bada, berandutu egingo zitzaien etortzea. Gañera, Pastotik beste sail bat bialduko ziotela, ta etzan iñor ageri andik ere. Onetan Aita Loidi —Santa Kruz— datorrela. Zer egin dezakegu estuasun ontan? esan zion Valderramak. —«Ara, erantzun zion: bide-ertzean dauden arbola guziak botatzeko agindu iezu, ta bidera botatzeko, itxi nai balute bezela». Bai egiñerazi ere, kartzelan zeudenak artarako aterata. Urbiltzen da Mata biurria, ta iñor egon ez ta, etsaiak an izkutaturik zeudelakoan, kuzkur itzuli zan. Lengoan izan oraindik ere Santa Kruz.

### XXXVIIIgarren txatala DORRONTSORO TA SANTA KRUZ

Lizarraga gizagajo bat zala badakigu. Ona emen beste gizagajo bat: Dorrontsoro. Gizagajo ez ezik «masoi» ere ba zala esaten omen zun Santa Kruzek. Gezur borobilla: olakorik eztu esan egundaño Santa Kruzek. Ikus zer dion, aspaldi gabe ala ere, bere azken-urteetan egindako karta batean: «Noiz esan det nik olakorik? Gezur aundia; nik esan nuna au da: bera oartu gabe ta bere asmo on guziek arren, masoien eskumakil izan zala, edo saldukeria egin zuten aiena; nik ezpaitakit masoiak izan ba ziran ere».

Kartan bertan iru bider aitortzen du Santa Kruzek, Dorrontsoro ori, oartu gabe izan zala saldukeriaren laguntzaile. Santa Kruzek irakurri zitun Dorrontsorok aren kontra paperetan zabaldu zitun izugarrikeriak; baño ala ere Gipuzkoan zan gizonik aundiena zala esaten du: «la primera figura de Guipúzcoa». «Nor ta ziran nere etsaiak», galdegiten dio bere buruari Santa Kruzek. «Aipatu ditudanetaz gañera, Dorrontsoro, Lizarragaren egite ber-berekoa. Gizon ona zan, baño Lizarragak oso lilluratu ta tutulikatua zedukan. Gorputz-itzaletz ere etzan gerrarako aukerako gizona: txiki, potxolo, sabel-aundia. Ezta arritzekoa, gizagajo au gerra bukatu baño len nere kontra ari izatea; baño bukatu zanetik, ainbeste saldukeri ikusitakoan, arritzen naiz, aurrera ere nere kontra ari izatea». «Gerrak ondatu zala Dorrontsoro? —Bai noski, jakiña; baño nik ez det esan, ez siñistu ere masoiei bere burua eman zienik. Gezur ori ta olako beste asko asmatu ditute nere kontra Pio Barojak eta zenbait liberalek, eta gizagajo on batzuk bai siñistu ere. Nai dutena esan dezakete: neri ajola gutxi aien esanarengatik. Karliten gerra, eskuarterik ezta bukatu zala. Ta nork iretsi zitun eskuarte ta laguntza-bide oiek? Nik ondatu al nun Dorrontsoro? Nik enun egunekorik kobratzen, ez nere mutillek ere. Norekin gastatzen zun bada oinbeste Dorrontsorok beretik eta errikotik? Ojalatero alper aiekin kontu-kontari egonda, jana ta irabazia lasa zedukaten aiekin. Lizarragarekin eta bere mutil-taldearekin, eta Lizarraga bezelako buruzagi askorekin: ez nerekin eta nere mutillekin. Nik enun iduritu gaiztorik Dorrontsorengana, gizon zintzoa ta esaizunik gabekoa baitzan; baño gerrarako gauza etzala esatean, beste askok artaz esan zuna esan, besterik eztet egiten. Arrek bai nereganako idurituak ez ezen burutapen beltzak ere. Gogorak eta latzak esanik dago neregatik molde-letraz. Gaizkiesaka



ta belzkeri oiek barkatzen dizkiet gizagajoari. Bere buruz etzan gauza nere gerra-moduari antzemateko. Lizarragaren adiskide baitzan, kutsutu egin zan aren nereganako gorrotoaz. Saltzaille gaiztoari siñistu egin zien Dorrontsorok, eta orregatik galarazten zidan ezer egitea, ta bera ere aiek ondatu zuten, eta bai Gipuzkoa ere».

Valde-Espinak berak ikus zer esaten dion Lizarragari: nere ustez sekulan ezta izan karlista Dorrontsorok; karlistazkoaz baliatu nai bai, bere burua aupatzeko. «Gerra-aurrean eta gerratekoan orrek artu dun joerarekin, kalte geigo egin digu Jovellarek eta Martinez Camposek eta Quesadak baño». Ta olakotxoak esaten ditu Valde-Espinak. Beaz apaiza etzan ari bere burutik, Dorrontsororen kontra ari zanean.

Lizarragak eta gañerakoak ere, berak ezin eginda Santa Kruzi galarazi zioten beintzat, eta ala ondatu ziran karlistak eta Gipuzkoa ta Euskalerrria.

### XXXIXgarren txatala EUSKALDUNA TA EUSKALERRIA

*Enskalduna.*— Ama Euskalerrria; zurekin itz-aspertu bat egitera nator.

*Enskalerrria.*— Esazu, seme.

*Enskalduna.*— Askok esaten dizugu maite zaitugula, ta zure izena abotan derabilgu.

*Enskalerrria.*— Biotzean baño geiago, seme. Betiko leloa da au.

*Enskalduna.*— Zer diozu karlistetaz?

*Enskalerrria.*— Ba ziran eta ba dira oietan euskaldun onak, banakak badere. Oiei zor diezute gaurko euskaldunak euskaldun-legeen ezaguera ta maitasuna. Gure errian itzalirik zegoan aspaldi Fueroenganako sua. Gizaldietan eta gizaldietan Erregeak etzuten ziñ-itzik ematen Don Karlos etorri arte. Onak ere, Errege izateko euskaldunetaz baliatu nai ta agindu zizkigun: euskaldunak Erregeaz baliatu nai Fueroai eusteko, ta biek musu-uts gelditu.

*Enskalduna.*— Ta zer diozu oraingo euskaldunetaz.

*Enskalerrria.*— Oien artean ere ba dira euskaldun zintzoak, banakotxoak oiek ere; baita Ni baño beren buruak maiteago dituztenak.

*Enskalduna.*— Zer bear du euskaldunak Zu maite izateko?

*Enskalerrria.*— Jainkoaren mendean egotea. Zer lege nai dituzu zere errirako? Beste noren mende egon nai? Zere buruaren mende? Begira ez ote zabiltzan oker! Jainkoak bere eskuan dauzka erriak: Arek azaltzen ditu, Arek ondatzen uzten ditu erriak. Aren mendean gauden arte, ez gera ondatuko.

*Enskalduna.*— Ortan nago ni ere: Euskalerrrian Jainkoaren legeak bear ditegula aurrena. Baño zer gaitz zer makar degu gaurko euskaldunak?

*Enskalerrria.*— Sabela dezute etsairik aundiena. Aberastu ziñeten, askorekin oitu, ta orain asko-bearra. Lanerako etzerate orañ ere besamotz, baño atzeko bat etortzen bada, zuen irabaziarekin errezago biziko da, ta etxetik bialduko zaituzte. Atzekoak ditezue nagusi, oien Amerika zuen erria da, ta zuek itxasoz arontzeko Amerikara joan-bearra, edo beintzat etxetik aldegin-bearra.

*Enskalduna.*— Sabelak, jan-edanak ondatu gaitu, bai. Urrena?

*Enskalerrria.*— Urrena, euskera baztarreratzeak. Gizon bizardunak eta neska apaiñak, lotsa artzen dute beren izkuntzaz. Mutil gazte zoroak



ere, ostikoka ta arrotz-jokua pranko, ta buruan muin gutxi, Euskalerria gorabera. Egi garratzagoak ere esan-bearra nintzake, baño gauza bat gogoan idukazu: Jainkoaren legepean nagon arte, Ni enaiz itzaliko; ta Arengandik aldegiten badet, errukarri naiz. Zuzentasunak eraikitzen ditu erriak; pekatuak ordea errukarri egiten ditu.

*Euskalduna.*— Jainkoaren legea ta euskera nai ditut Zuretzat, Ama Euskalerria: gañerakoa Jainkoaren kontu. Bera baita errien jabe ta jaun.